



**JUNTA DEL VALLE DE AEZKOA
AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIA**

31671 ARIBE (Navarra) · CIF: P3175000C
Tel: 948 76 43 75
junta@aezkoa.net
valledeaezkoa@gmail.com
www.aezkoa.org

Ariben, 2024ko otsailaren 12an, eguerdiko hamabi eta erdietan, Aezkoako Batzarre Nagusiak bilkura arrunta egin du, lehenengo deialdian, legez deituta, haren presidente titularrak zuzenduta eta jarraian adierazten diren kideak bertan zirela, eguneko honako gai hauek aztertzeko:

BILDUTAKOAK

Batzarreburu jauna: Karlos Bueno Reka

Batzarrekide jaun/anderak: Anchorena Laurenz, Francisco Javier - Galarza Larrayoz, Maria Carmen – Merino Iriarte, Juan Esteban – Zabalza Barberena, Izaskun.

LEHENENGOA.- AURREKO BILKURAREN AKTA ONETSI.

2023ko abenduaren 26an egindako bilkuraren akta onetsi da, eragozpenik agertu ez baita.

BIGARRENA.- 2024KO AURREKONTUAK ETA HAIEN EXEKUZIO OINARRIAK.

Abenduaren 26an egindako bilkuran aurkeztu zen 2024. urterako aurrekontuaren zirriborroa, eta aetzen Batzarrean ere aurkeztu zen aurtengo urtarrilaren 18an. Azken horretara bertaratutakoek ez zuten inolako eragozpenik jarri. Beraz, osoko bilkurak aho batez, hots, kideen legezko kopuruaren gehiengo osoz, onartu du 2024rako aurrekontuaren proiektua eta hura betearazteko oinarriak, eta akta honi erantsita gelditu dira. Halaber erabaki du, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 275. artikuluan eta hurrengoetan araututakoa betez, jendaurrean jartzea hamabost egun balioduneko epean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Batzarre Nagusi honen iragarki-oholean eta web-orrian iragarri ondoren, herritarrek eta interesdunek espedientea idazkaritzan aztertu eta egoki irizitako alegazioak egin ditzaten.

Jendaurrean jartzeko epean alegaziorik edo erreklamaziorik aurkezten ez bada, 2024rako Aurrekontu Orokor Bakarra behin betiko onartutzat joko da, eta laburpena argitaratzeko izapidea beteko da. Aurrekontua osatzen duten gastuen eta sarreraren banakapena, kapituluka, honako hau da:

GASTUAK:

1.Kapitulua – Langileen gastuak:	389.340,00 euro
2.Kapitulua – Gastu arruntak eta zerbitzuak:	230.030,00 euro
4.Kapitulua – Transferentzia arruntak:	67.220,00 euro
6. Kapitulua – Inbertsio errealak:	743.410,00 euro
Gastuak, guztira:	1.430.000,00 euro.

DIRU-SARRERAK:

3.Kapitulua – Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera:	136.000,00 euro
4.Kapitulua – Transferentzia arruntak:	193.400,00 euro
5.Kapitulua – Ondare eta komunalen aprobetxamendua:	474.100,00 euro
7.Kapitulua - Kapital transferentziak:	530.500,00 euro.
9. Kapitulua - Finantza pasiboak:	96.000,00 euro.
Sarrerak, guztira:	1.430.000,00 euro.

HIRUGARRENA.- 2024KO PLANTILLA ORGANIKOA.

Osoko Bilkurak erabaki du 2024ko ekitaldiko plantilla organikoa onartzea. Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 19. eta 20. artikuluetan eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 235. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, onartutako espedientea. Idazkaritzan egonen da ikusgai hamabost egun balioduneko epean, plantillaren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, auzotarrek eta interesa duen edonork aztertu eta, hala badagokio, egoki irizitako erreklamazio edo oharra egin ditzaten.

Aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesuetatik erator daitezkeen aldaketei kalterik egin gabe onartu da, abenduaren 28ko 20/2021 Legean, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoan, xedatutakoaren arabera.

Jendaurrean jartzeko iragarkia erakunde honetako iragarki oholean eta web orrian ere argitaratuko da, epe berean. Adierazitako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, plantilla onartutzat joko da, eta lanpostuen eta baldintzen zerrenda osoa argitaratuko da. Honako hau da zerrenda:

Lanpostuen zerrenda

1-Funtzionarioak

1.1-Lanpostuaren izena: Idazkaria.

Plaza kopurua: 1. Betetzeko modua: Oposizio-Lehiaketa. Maila: A. Lanpostuko osagarria: %39'72. Lanaldi osoa. Euskara Hizkuntza profila: C1. Hutsik

Esther Urtasun Fuertes. Antzinasuna: 1991ko apirilaren 2a. Bosturteko: 6. Gradu: 5.

2-Lan kontratuduneko langile finkoak

2.1-Lanpostuaren izena: Administrari laguntzailea.

Plaza kopurua: 1. Betetzeko modua: Oposizio-Lehiaketa. Maila: D. Jardunean. Mailako osagarria: %12. Lanpostu osagarria: %10,99; Lanaldia: %50. Euskarazko Hizkuntza profila: C1.

Lourdes Indaburu Irigoien. Antzinasuna: 2002ko urtarrilaren 2a. Hirurteko: 4 – Egoera: eszedentzia. Aldi baterako: Maider Juanicorena Santesteban.

2.2-Lanpostuaren izena: Euskara Zerbitzuko teknikaria.

Plaza kopurua: 1. Betetzeko modua: Oposizio-Lehiaketa. Maila: B. Hutsik. Lanpostu osagarria Lanpostu osagarria: %20. Langilea Azoizko Udalarekin partekatutakoa da. Euskarazko Hizkuntza profila: C2.

Idoia Zabaltza Garate. Antzinasuna: 1989ko abenduaren 15a. Kontratu administratiboa. Bosturteko: 6. Gradu: 5.

2.3-Lanpostuaren izena: Garbiketa langilea.

Plaza kopurua: 1. Betetzeko modua: Oposizio-Lehiaketa. Maila: E. Hutsik. Lanpostu osagarria %15. Lanpostu osagarria: %8,21. Lanaldia: %41.37. Euskarazko Hizkuntza profila: meritua.

M^a Cruz Ilincheta Juamperez. Antzinasuna: 2009ko urtarrilaren 3a. Kontratu administratiboa. Bosturteko: 2. Gradu: 2.

2.4- Lanpostuaren izena: Iratiko Zaintza eta Informazio zerbitzua

Plaza kopurua: 5. Betetzeko modua: Oposizio-Lehiaketa. Maila: D. Hutsik: 2. Lanpostu osagarria: %12,00. Lanpostuko osagarria: %2,7 Euskarazko Hizkuntza profila: B2. Lanaldia: osoa, turismo denboraldiko kanpainan.

Elena Garaialde Etxeberz. Antzinasuna: 2010eko apirilaren 8a. Kontratu mugagabe etena. Hirurteko: 4.

José Ignacio Ubau Galarza. Antzinasuna: 2015eko apirilaren 24a. Kontratu mugagabe etena. Hirurteko: 1 – Egoera: eszedentzia.

Imanol Ubau Galarza. Antzinasuna: 2016ko abuztuaren 12a. Kontratu mugagabe etena. Hirurteko: 2.

Iñigo Agorreta Bernal. Hirurteko: 1. Antzinasuna: 2020ko otsailaren 24a . Kontratu mugagabe etena. Hirurteko: 1.

LAUGARRENA.- 2024KO KARGA TASAK.

Aurkeztu da 2023.ean indarrean egondako prezio zerrenda, eta guztien zenbatekoak berrikusi dira.

1- Iratiko mantentzea

2023an, Zaraitzuko Batzordeak Iratiko mantentzerako prezioak igotzea aldatzea onartu zuen. Ondoren, indarrik gabe utzi zituen, Aezkoako Batzarre Nagusiak aldaketa hori ez egitea erabaki zuelako eta espazio berean antzeko prezioak eduki ahal izateko.

Gaia eztabaidatu ondoren, Osoko Bilkurak Iratiko mantentze-tasaren zenbatekoa aldatzea erabaki du, eta Zaraitzuko Batzordeak dagoeneko onartuta dituen prezio berberak ezarri. Hauek dira erabakitako prezioak:

Mantentze tasa - Irati	Prezio orokorra	Prezioa, deskontu txartelarekin
- Ibilgailuak	7,00 €	4,00 €
- Motorrak	3,00 €	2,00 €
- Autobus handiak	45,00 €	22,00 €
- Mikrobusak	28,00 €	18,00 €

Arrazolan, Kultur Ola bisitatzeko deskontu-txartel bat, %20koa, eskura daiteke.

2- Kanpatzeko gunea.

Gaur egun, Orbaizetako Udalak Arrazola inguruan kanpatzeko ezarritako tasa kobratzen ari da; azken urteotan, tasak ez du inolako aldaketarik izan. Gunea bi entitateek elkarrekin kudeatzen dutenez, Batzarre Nagusiaren Osoko Bilkurak prezio hauek ezartzea erabaki du:

- 2,00 €/ pertsona/eguneko. Erreserbarako fidantza: % 50.

- 7,00 €/egun/aparkatutako ibilgailuko (prezio orokorra). Aurreko paragrafoan adierazitako pertsonako eta eguneko zenbatekoaz gain kobratuko da.

Oharra.- Tiketa goizeko 11:00etatik hurrengo eguneko 11:00etara egonen da indarrean, entregatzeko ordua edozein dela ere. 11:00etatik aurrera denda kendu edo txartela(k) beritu beharko d(ir)a.

3. Autokarabanentzako gunea

Prezio hori 2023an onartu zenez, Batzarre Nagusiak erabaki du Arrazola eremura sartzen diren autokarabanentzat 10,00 €/ eguneko kobratzen jarraitzea (gunea publikora irekitzen denetik hasita).

4- Kultur Ola

2023an onartutako prezioak bere horretan mantentzea erabaki da, baina honako salbuespen hauekin: erretirodunentzako, pentsiodunentzako edo enplegu-eskatzailleentzako deskonturik ez da egonen, sarreraren baldintza betetzen dituztenak kontrolatzea zaila delako. Beraz, Kultur Olara sartzeko honako prezio hauek ezarri dira:

	Kultur Ola	Bisitaldi gidatua
Sarrera Orokorra	5,00 €	8,00 €
Orokor bateratua	10,00 € (Kultur Ola + bisitaldi gidatua)*	
Sarrera hobaridunak:		
-10 urtetik beherakoak	Doan	Doan
-Ikastetxeetako taldeak	1,00 €/pertsonako	1,00 €/pertsonako
-Antolatutako taldeak (15 pertsona gutxienez)	%20ko deskontua, sarrera orokorraren gainean	
Deskontua – Iratira sartzeko	%20ko deskontua, sarreraren prezioaren gainean*	
	*Iratzi-Arazolan aurkeztutako txartelarekin	

1-* Sarrera orokor bateratuak Iratira sartzeko deskontu txartel bat ematea ekarriko du.

2- Taldeen bisitak aldez aurretik jakinarazi beharko dira, erreserba egiteko eta deskontua aplikatu ahal izateko.

3- Aezkoa ibarreko bizilagunentzako urtean 4 bisitaldi antolatuko dira, erakusketa-gunea ikusteko zein ibilbide gidatua egiteko. Doakoak izanen dira. Datak "aezkoa.org" webgunean argitaratuko dira. Egun horietatik kanpo, sarrera gainerako bisitarien baldintza berberetan izanen da.

4- Prezio hobariduna duten sarrerak edo doako sarrerak eskuratzeko, ezinbestekoa da dagokion kategoriari lotutako akreditazioa aurkeztea.

5- Produktu Naturalak

Iratira sartzeko prezioa parekatu den bezala, produktu naturalak biltzeko ezarritako prezioak berrikusi dira, horiek ez baitira aldatu barrutia egitea erabaki zenetik. Zaraitzuko Ibaixaren Batzordeak ezarrita dituen eguneko eta urteko prezio orokorrekin parekatzea erabaki da. Produktu naturalak jasotzeko prezioak aldatu eta honela gelditu dira: eguneko txartelarena, 10,00 € eta urtekoa, 100,00 €. Erroldatutako egoiliarren urteko txartelaren prezioa 10,00 €-tan mantentzen da, eta erroldatuta dauden baina bizi ohi ez direnentzako urteko txartelaren prezioa, 40,00 €ko izanen da.

Halaber, erabaki da bazkalekuetara sartzen den azientarengatik kuota mantentzea, baita fotokopiatze eta plastifikatze zerbitzuko ere.

BOSGARRENA.- 2023KO PLANeko OIHAN ENKANTEA

Jaso da 28/2024 Ebazpena, urtarrilaren 19koa, Oihan eta Ehiza Kudeatzeko Zerbitzuko zuzendariak emana, 2023.urteko aprobetxamendu plana onesten duena (aurreko urtean ez zen baimendu). Horrenbestez, Aezkoako Batzarre Nagusiak erabaki du bertan aurikusitako loteak saltzeko enkantea iragartzea.

Enkantea Nafarroako Toki Erregimena eguneratzen duen 11/2004 Foru Legeak, urriaren 29koak, 5. Xedapen Gehigarrian, eta 6/1990 Foru Legeak, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioakoak, xedatutakoari jarraikiz

izapidetuko da. Seinaleztatutako oihan loteak, eta dagozkion balorazio ekonomikoak, 2023ko planekoak dira, eta Nafarroako Gobernuak onetsitako baldintza teknikoen pleguari eta Batzarre Nagusiak onetsitako baldintza ekonomiko-administratiboen pleguari lotuak daude. Paraisos alderdiko lotearen baldintza bereziak direla eta, hori ustiatzeko zenbait klausula ezarri dira, turismoan ahalik eta eragin txikien izan dezan eta bi jarduerak interferentziarik gabe egin ahal izateko.

Honako hau da enkantean jarriko diren oihan-loteen zerrenda:

- **1/2023 Lotea – Alderdia: Gibelea.** Pagoa – Azken mozketa. Kokapena: 348-a, 35-a, 351-a-b-c, 352-b, 353-a, 359-c, 360-d, 367-c.

4.049 zuhaitz-oin dira, guztira 5.777 m³ egiten dituztenak. Horietatik 76 m³, lehen mailako zura da, eta, metro kubikoko, 50,00 € balio du; 484 m³, bigarren mailako zura da, eta, metro kubikoko, 40,00 € balio du; beste 5.217 m³, berriz, enbor txikiak dira, eta metro kubikoko 15,00 € balio dute. Lehen mailako zuraren balioa hiru mila zortziehun eta hogeita lau euro eta laurogeita sei zentimokoa da (3.824,86 €). Bigarren mailako zuraren balioa hemeretzi mila hirurehun eta berrogeita sei euro eta hamalau zentimokoa da (19.346,14 €); eta enbor txikiena hirurogeita hamazortzi mila eta berrehun eta berrogeita bederatzi euro eta laurogeita bi zentimokoa (78.259,82 €).

LOTEA, GUZTIRA: 101.430,82 € (Ehun eta bat mila laurehun eta hogeita hamar euro eta laurogeita bi zentimo)

- **2/2023 Lotea – Alderdia: Paraisos.** Pagoa – Azken mozketa. Kokapena: 280-b-c-d, 281-a, 282-a-d, 283-b, 284-a, 287-a, 288-b.

1.921 zuhaitz-oin dira, guztira 2.883 m³ egiten dituztenak. Horietatik 35 m³, lehen mailako zura da eta, metro kubikoko, 50,00 € balio du; 886 m³, bigarren mailako zura da eta, metro kubikoko, 40,00 € balio du; beste 1.961 m³, berriz, enbor txikiak dira, eta metro kubikoko 15,00 € balio dute. Lehen mailako zuraren balioa mila zazpiehun eta hirurogeita hamalau euro eta berrogeita lau zentimokoa da (1.774,44 €). Bigarren mailako zuraren balioa hogeita hamabost mila laurehun eta hogeita lau euro eta berrogeita lau zentimokoa da (35.424,44 €); eta enbor txikiena hogeita hemeretzi mila laurehun eta hogeita bi euro eta hogeita bi zentimokoa (29.422,22 €).

LOTEA, GUZTIRA: 66.621,10 € (hirurogeita sei mila seiehun eta hogeita bat euro eta hamar zentimo)

Eskaintzak 2024ko martxoaren 1eko 12:00ak arte aurkeztu ahal izanen dira, Aezkoako Batzarre Nagusiaren Erregistroan, baldintza administratiboen pleguan adierazitako dokumentazioarekin batera. Proposamen ekonomikoak jendaurrean irekiko dira martxoaren 7an, 12:00etan, Aezkoako Etxeko Bilkura Aretoan (Aribe). Enkantea arautzen duten baldintza teknikoak eta ekonomiko-administratiboak Batzarre Nagusiko idazkaritzan ikusgai daude, interesatuen eskura.

SEIGARRENA.- AEZKOAKO HERRI LURRAK- PARTE-HARTZE PROZESUA.

2023an komunala "Herri lurra: alternatiba jasangarria" udako ikastaroetan landu ondoren, Aezkoako Batzarre Nagusiak uste du beharrezkoa dela gai horretan sakontzea, bailarako biztanleekin eta komunalarekin lotura zuzena duten eta bertan lan egiten duten eragileekin batera, balioan jartzeko, ezagutza handitzeko eta jakintza kolektiboak ibar osora transmititzeko.

Proposamenaren bidez, komunala balioesteko, transmititzeko eta ezagutzeko laguntza teknikoaren irismena deskribatu nahi da Aezkoako

herritarren eta bertako eragileen artean. Aezkoako herri lurren balioari, transmisioari eta ezagutzari buruzko prozesuaren diseinua eta garapena, Aezkoako Batzarre Nagusiak sustatua, jasotzen dira.

Prozesua partaidetza-prozesu baten bidez garatuko da, eta prozesu horretan ibarreko biztanleek parte hartuko dute, bai eta bailarako bizitzarekin, herri-ingurunearen kudeaketa, zaintza eta ustiapenarekin lotuta dauden hainbat eragilek ere.

Prozesu horretan oinarriak ezarriko dira. Lehen fase batean autodiagnostikoa egingen da. Horren ondoren, transmisioa aztertuko da, zenbait alderditan: batetik, herritar guztiei dagokienean, eta belaualdi berriei bereziki; bestetik, Aezkoa Kultur Elkartearekin lotura duten pertsonen dagokienean, Aezkoa mendia berreskuratzeko agente erabakigarria izan zen aldetik eta horren helburuetako bat mendia defendatzea eta balioestea delako. Deskribatutako lanak egiteko zenbatekoa 8.700,00 €-koa da, BEZik gabe.

Proposamen hori aurkeztu da Nafarroako Foru Komunitatean herritarren parte-hartzea sustatzeko eta sustatzeko proiektuak garatzen dituzten toki entitateentzako dirulaguntzen deialdia onartzen duen Nafarroako Lehendakarietzako, Gobernu Irekiko eta Parlamentuarekiko Harremanetarako zuzendari nagusiaren azaroaren 22ko 835E/2023 Ebazpenaren bidez onartutako dirulaguntzen deialdira, berretsi gabe badago ere. Aurreikusitako dirulaguntzaren ehunekoa % 80 da.

Osoko Bilkurak berretsi egin ditu egindako jarduketak, eta 2024rako azterlan hori izapidetzen jarraitzea erabaki du, betiere dirulaguntza espedienterako modu positiboan ebatzen bada. Adierazitako lanak Artelan enpresari esleituko zaizkio, adierazitako zenbatekoan, Kontratu Publikoari buruzko 2/2018 Foru Legean, apirilaren 13koa, 81. artikuluan zenbateko txikiko kontratuetarako aurreikusitakoaren arabera.

ZAZPIGARRENA.- TURISMO INFORMAZIO ZERBITZURAKO ETA ZENBAIT LAN EGITEKO LANGILEAK KONTRATATZEA.

1.- BASO ZERBITZUETAKO ETA INGURUMENEN LANGILEAK.

Ikusirik Nafar Lansare Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emandako 251/2018 Ebazpena, martxoaren 7koa, zeinaren bidez dirulaguntzak deialdia arautzen den, Aezkoako Batzarre Nagusiaren osoko bilkurak erabaki du bi pertsona kontratatzea sei hilabetez, Baso eta Ingurumen Kudeaketarako. Honako eginkizun hauek izanen ditu: baso kudeaketa, baso tratamenduak, belar sastrakak kentzea eta garbitzea, zuhaitzak markatzea, korraleak konpontzea, hondakinak kontrolatzea, sarbideak egokitzea, suteen prebentzioa, garbiketa, atsedenlekuak, makinak prestatzea eta mantentzea, abeltzaintza-kudeaketa eta abar, horri buruz egin den memorian adierazitakoaren arabera. Aurreko urteetan bezala, Ibarreko udalekin hitz egingen da langile horiek aldi batzuetan eduki behar dituzten ala ez adieraz dezaten, eta beren udalerrietara bideratzen diren egunen diruz lagundu gabeko kostuak beren gain hartuko dituzte.

Hileko soldata Administrazioaren E mailakoari dagokiona izanen da, gehi % 15eko osagarria. Beraz, soldaten kostua 19.700,00 €-koa da, gehi enpresaren segurtasunaren kostua 7.289,00 €-koa. Proiektu honen guztizko zenbatekoa 26.989,00 €-koa da.

Batzarre Nagusiak erabaki du proiektu honen finantzatu gabeko kostuak bere gain hartzea eta, bere garaian, Nafarroako Enplegu Zerbitzuari kontratuak hasi direla jakinaraztea. Indarrean dagoen 2024rako gastu-aurrekontuan eta 2023rako luzatuan nahikoa aurrekontu-izendapen dago.

Epaimahaiaren hautaketan eta izendapenean aplikatzeko baremoa ere onartu da. Hautaketa honetan datza: merezimenduak (30 puntu), esperientzia (10 puntu) eta lanpostuaren eta bere eginkizunen ezagutzari buruzko proba praktikoa (60 puntu). Kontratua Aste Santuaren ondoren hasiko da, eskaintza kudeatzeko eta hautatzeko aukeren arabera.

2- INFORMAZIOKO LANGILEAK

2.1. – Pertsona bat kontratatzea, informazio, antolaketa eta koordinazio lanak egiteko. 9 hilabeteko kontratua egingen zaio. Horretarako, dirulaguntza eskatuko zaio EZNri, Nafar Lansare Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak martxoaren 7an emandako 251/2018 Ebazpenaren bidez araututako laguntzen deialdiaren barruan. Kontratuaren hasiera martxoaren 18rako ezarri da, eta kontratuaren amaiera abenduaren 17rako.

Sartzeko baldintzak:

- Enplegu eskatzaile gisa agertzea.
- Gutxienez eskola graduatua izatea.
- C-1 mailaren baliokidea den euskararen ezagutza justifikatzea titulazio bidez edo Euskarabideko proba bat gaindituta.

Batzarre Nagusiak honako kolektibo hauetako bateko kide izatea lehenetsiko du: RG jasotzen duten pertsonak – gutxienez % 33ko desgaitasuna duten pertsonak – 18 eta 21 urte bitarteko emakumeak – Babes Sistematik datozen eta 51 urtetik gorako autonomia prozesuetan dauden gazteak.

Lanaldia % 100ekoa izanen da. Lan egutegiaren barruan asteburu eta jaiegun batzuk sartuko dira. Soldata administrazioaren D mailari dagokio, eta mailaka, lanpostuka eta jaiegunetan lan egiteagatik ezarritako osagarriak ordainduko dira.

Izena emateko epea NEZn aurkezten den eskaintzan zehaztuko da.

- Hautaketa honetan datza: esperientzia baloratzea (10 puntu), test motako proba tekniko teoriko bat egitea (40 puntu), kasu-ariketa bat edo kasu praktikoa egitea (40 puntu) eta elkarrizketa (10 puntu).

Esperientziaren araberako puntuazioen banakapena:

- Edozein erakunde publiko edo pribatutan turismo-informatzaile gisa lan egindako 2 hilabeteko: puntu 1, gehienez 10 puntu.
- Turismo-sektorearekin, ingurune naturalarekin, lotutako lanpostuetan lan egindako 4 hilabeteko aldi bakoitzeko: puntu 1, gehienez 6 puntu.
- Zuzenean jendaurreko lanpostuetan lan egindako 6 hilabeteko: puntu 1, gehienez 4 puntu.

2.2 - Aurreko kontratazioaz gain, aldi baterako kontratazio zerrenda bat egin behar da, Kultur Olako eta Irati-Arrazolako turismo informazioko zerbitzuak indartzeko zerbitzu denboraldian. Baldintza hauek bete beharko dira:

- Enplegu eskatzaile gisa egotea.
- Gutxienez eskola graduatua izatea.
- B-2 mailaren baliokidea den euskararen ezagutza justifikatzea titulazio bidez edo Euskarabideko proba bat gaindituta.
- Hautaketa honetan datza: esperientzia baloratzea (10 puntu), test motako proba tekniko teoriko bat egitea (40 puntu), kasu-ariketa bat edo kasu praktikoa egitea (40 puntu) eta elkarrizketa (10 puntu).

Esperientziaren araberako puntuazioen banakapena:

- Edozein erakunde publiko edo pribatutan turismo informatzaile gisa lan egindako 2 hilabeteko: puntu 1, gehienez 10 puntu.

- Turismo sektorearekin, ingurune naturalarekin, lotutako lanpostuetan lan egindako 4 hilabeteko aldi bakoitzeko: puntu 1, gehienez 6 puntu.
- Zuzenean jendaurreko lanpostuetan lan egindako 6 hilabeteko: puntu 1, gehienez 4 puntu.

Lanaldia % 100ekoa izanen da. Lan-egutegiaren barruan asteburu eta jaiegun batzuk sartuko dira. Soldata administrazioaren D mailari dagokio, eta mailagatik, lanpostuagatik eta jaiegunetan lan egiteagatik ezarritako osagarriak ordainduko dira.

Bete eta indartu beharreko lanpostuak honako hauek dira (pertsonek berak egin dezake zerbitzua lanpostu batean edo gehiagotan, beharren arabera):

- Aste Santuko denboraldian, uztailetik azarora bitartean, abenduko zubian eta behar diren egunetan, 2 pertsona kontratatzea Kultur Olarako turismo informatzaile gisa, lehenengoari laguntzeko zeregin metaketagatik.

- Iratiko zerbitzua indartzeko langileak

Hiru/lau pertsona kontratatzea, turista gehien biltzen diren egunetan zerbitzua indartzeko: uztailetik azarora bitarteko hilabeteetan eta baita bajak, ordezkapenak eta abar direla-eta behar diren egunetan.

- Aezkoako Turismo Bulegoko langileak. Pertsona bat kontratatzea Aezkoako (Aribeko garaia) turismo bulegorako, uztailaren 10etik azaroaren 9ra arte.

ZORTZIGARRENA.- TABERNA-JATETXEA KUDEATZEKO LIZITAZIOA

luz erabaki bezala, Kultur Olako taberna-jatetxearen kudeaketa esleitzeko lizitazioa hutsik geratu ondoren, Kultur Olako taberna-jatetxea kudeatzeko kontratuaren lizitazioaren oinarri izan zen baldintza arautzaileen proposamena berrikusi da.

Klausulak berrikusi dira eta Orbaizetako Munizio Olako Aezkoako Kultur Ola – Jauregia eraikinean taberna-jatetxea kudeatu eta ustiatzeko emakida kontratua esleitzeko lizitazioaren iragarkia kontratazio atarian argitaratzea erabaki da.

Agiri honen xede den kontratazioa Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 72., 138. artikuluetan eta horiekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera esleitzeko da, Europako atalasea baino prozedura ireki txikiagoz, izapidetze arruntaren bidez. Lizitazioa elektronikoki egiten da Nafarroako Lizitazio Elektronikorako Plataformaren bidez.

Interesdunek kontratazio-atarian adieraziko den epean aurkez ditzakete proposamenak, Nafarroako Lizitazio Plataforma OSOAren bidez. Lizitazioaren prezioa urtean 2.400,00 eurokoa da (bi mila eta lauhun euro), edo lizitazioaileak bere eskaintzan zehaztutakoa, handiagoa bada. Kontratua urtebeterako izanen da, eta beste 4 urtez luzatu ahal izanen da, gehienez ere 5 urte bete arte. Halaber, lizitazioan interesa duten pertsonak edo enpresek lantokia ezagutzeko instalazioak bisitatzeko eskatu ahal izateko ohar bat egitea erabaki da.

Interesdunek kontratazio atarian adieraziko den epean aurkez ditzakete proposamenak, Nafarroako Lizitazio Plataforma PLENAREN bidez. Lizitazioaren prezioa urtean 2.400,00 eurokoa da (bi mila eta lauhun euro), edo lizitazioaileak bere eskaintzan zehaztutakoa, handiagoa bada. Kontratua urtebeterako izanen da, eta beste 4 urtez luzatu ahal izanen da, gehienez ere 5 urte bete arte.

Halaber, egitea erabaki da ohar bat igortzea, lizitazioan interesa duten pertsonak edo enpresek instalazioak ezagutzeko bisitaldian eskatu dezaten.

BEDERATZIGARRENA.- HAINBAT

9.1- 2024ko baso jardueren proiektuko lanak esleitzea.

Batzarre Nagusiaren Osoko Bilkurak 2023ko abenduaren 26an onartutakoaren arabera, 2023-2024 kanpainarako Baso Lanen Proiektuari dagozkion hiru lote esleitzeko espedientea izapidetu zen, prozedura erraztuaren bidez eta Nafarroako lizitazio elektronikoko plataformaren bidez - PLENA-.

Hamalau enpresa eta profesionali bidali zitzairen gonbidapena, prozeduran parte har zezaten. Epea amaitu ondoren, eskaintzak aurkeztu ziren 1. eta 3. loteetarako, eta, horregatik, proposamenak aurkezteko epea otsailaren 9ra arte luzatzea erabaki zuen kontratazio mahaiak. Azkenik, lote guztietarako eskaintzak aurkeztu dira. Proposamenak gaur ireki dira. Beraz, esleipen proposamenak jakinaraziko zaizkie enpresei, esleipendunek ezarritako epean baldintza pleguan eskatzen diren agiriak aurkez ditzaten.

Osoko Bilkurak, kontratazio-mahaiaren proposamena ikusita, baso lanen loteei dagozkien obra kontratuak honako enpresa hauei esleitzea erabaki du, adierazitako zenbatekoetan, kontratazioa arautzen duten baldintza orokorrei eta esleipendunak aurkeztutako eskaintzei lotuta, eta eskatutako dokumentazioa egiazki aurkeztearen baldintzapean. Aurkezten ez bada, puntuazio altuena lortu duen hurrengo enpresari esleituko zaio:

- 1. lotea: birlandaketa: hondakinak errez deuseztatzea, lurra prestatzea eta ziklo ertaineko espezieak landatzea. Lotearen balioa: hirurogeita zazpi mila ehun eta zazpi euro eta hemezortzi zentimo (67.107,18 €), BEZik gabe.

Excavaciones y Transportes Mendizar enpresari esleitu zaio, guztira 90 puntu lortu baititu, 65.700,00 euroko prezioan.

Laza SC-k eskaintza aurkeztu zuen. Eskaintzaren zenbatekoa: 67.107,00 euro. Esleitutako puntuak, guztira, 88,11.

- 2. lotea: udako garbiketak: lotearen balioa: hamabi mila bederatzehun eta hamazazpi euro eta laurogeita sei zentimo. 12.917,86 €, BEZik gabe.

Oroitz Hernando Olabarrietari esleitu zaio, guztira 90 puntu lortu baititu, 12.900,00 euroko prezioan.

Laza SC-k eskaintza aurkeztu zuen. Eskaintzaren zenbatekoa: 12.917,00. Esleitutako puntuak: 89,88.

- 3. lotea: abeltzaintzako belar-sastrakak kentzea: lotearen balioa: hogeita zortzi mila eta berrogeita hamasei euro eta hemeretzi zentimo. (28.056,19 €) BEZik gabe.

Excavaciones Mendi-Lani esleitu zaio, guztira 93,40 puntu lortu baititu, 28.056,19 euroko prezioan.

Zibur Trabajos Forestales enpresak eskaintza aurkeztu zuen. Eskaintzaren zenbatekoa: 27.700,00 €. Esleitutako puntuak: 84,48.

Excavaciones Saragüeta enpresak eskaintza aurkeztu zuen. Eskaintzaren zenbatekoa: 26.700,00. Esleitutako puntuak, guztira: 90,00.

Kontratu publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 101. artikuluan xedatutakoaren arabera, esleipenaren eraginkortasuna etenda geratuko da hamar egun naturaleko epean, esleipenaren jakinarazpena bidaltzen den egunetik zenbatzen hasita, bidalketa bitarteko elektronikoen bidez egiten bada.

9.2- "Sustraiak" programa, praktiketako ikasleak kontratatzeko.

250 langile baino gutxiago dituzten entitateei zuzendutako programa, NUPen prestakuntza-praktikak egiteko. Nafarroako Gobernuaren finantzazioa du, eta arrisku demografikoa duten eremuetako proiektuetan laguntzea ahalbidetzen die unibertsitate prestakuntza duten gazteei. Baldintzak berrikustea erabaki da, intereseko gairen batean sar daitekeen ikusteko.

9.3- Orion txabolaren ingurua ixteko eskaera

N. Barberrek idatzi bat aurkeztu du. Bertan adierazi du, Oriongo txabolako teilatua berri duela, eta orain inguruan itxitura bat egiteko baimena eskatu du, azia nagusia teilatuaren hegaleraino iritsi ez dadin, teilak apurtzen baitituzte.

Osoko Bilkurak erabaki du eskaera hori Orbaizetako Udalari helaraz dezala erantzutea, eta bertan dagokion obra-lizentzia eskatzea.

9.4- Nafarroako Mendi Kirol eta Eskalada Federazioaren proposamena, seinaleak berritzeko.

FNDMEK idazki bat aurkeztutako du, GR sareko ibilbideetako seinaleztapena laster berrituko dela adierazteko. Mastak eta seinaleak aldatuko dituzte, eta uste dute aukera ona dela Batzarre Nagusiak bere bidexketako seinaleak ere berritzeko, zutoin berberetan jartzen baitira, gezien kostua soilik ordaintzeko, eta federazioak bere gain hartuko du instalazioa. Era berean, Batzarre Nagusiaren ibilbideen seinaleztapen guztia berritzea gomendatzen dute, beharrezko baldintzak betetzen ez dituela uste dutelako.

Osoko Bilkurak uste du aukera ona dela seinaleen egoera berrikusteko eta gaizki daudenak ordezkatzeko. Federazioarekin harremanetan egonen da, lana koordinatzeko.

9.5- "100urte/100mendi" proposamena

Orbaizeta Kultur Ekimenak aurkeztu du proposamena. Euskal Mendizale Federazioak ehun urte beteko dituela azaldu du. Horretarako, 100 tontorrerako igoera antolatu da, eta horietako hiru Aezkoan: Berrendi, Baigura eta Urkulu. Aezkoa Kirol Elkarteak, Orbaizeta Kirolak eta Orbaizetako Kultur Ekimenak batera antolatzen ari dira mendi horien igoera. Apirilaren 27an Munizio Olatik Urkulura igotzea aurreikusitako da, eta antolakuntzarako laguntza eta ekitaldien aurrekontuari aurre egiteko laguntza ekonomikoa lortzea gustatuko litzateke.

Batzarre Nagusiak proposamen hori egitea babestea erabaki du, eta, horretarako, zuzenean aztertuko da antolakundearekin lankidetzan aritzeko modua.

9.6- Garbiketa, Arlagainen

Basozainen proposamena aztertu da, Arlagaingo alertzedian bakandua egiteko (hondakinak aprobetxatuz) Batzarre Nagusiak baimena eska dezan. Zuzenean esleitu ahal izanen litzateke lana, izan ere kendu beharreko zuhaitz oinen diametroa aski handia da merkaturatu ahal izateko. 2024ko baso plenen barruko lantzat hartzeko aukerari buruz ere aritu ziren, baina uste izan dute lehenengoa onuragarriagoa dela Batzarre Nagusiarentzat.

Batzarre Nagusiak uste du egokiagoa dela bakandua egiteko modua hori; beraz, Baso Zerbitzuko langileekin zuzenean hitz egiten da, bolumena eta balorazio ekonomikoa ezagutzeko.

9.7- Lehorteari buruzko ikerketa-proiektua

Tartuko (Estonia) unibertsitateko ikerketa-talde batek eta CSICek proposamen bat aurkeztu dute, lehorteak lurreko ekosistemei nola eragiten dien ulertzeko. Horretarako, prezipitazio ugari leku bat aurkitu dute

Nafarroan, lehorteari buruzko esperimendu batzuk egiteko. Aukeratutako eremua Azalegi izan da; han, apiriletik urrira bitartean 60 m2 inguruko eremu bat inguratu nahi dute, eta eremuaren barruan probak egiteko sei lursail markatuko dira.

Adierazitako proiektua gauzatzeko baimena eskatu dute. Batzarre Nagusiaren Osoko Bilkurak erabaki du baimena ematea eskaeran ezarritako kokalekuetan eta baldintzetan azterlana egiteko.

9.8- "1.080 € Orain" gizarte-ekimenerako eskaera

"1.080 € Orain" gizarte-ekimenaren idazkia irakurri da, zeinetan Batzarre Nagusiari eskatzen dioten ekimenarekiko atxikimendua adieraztea, 1.080,00 €-ko gutxieneko pentsioa ezartzea, gizarte eta justizia premia gisa. Horretarako, osagarri bat onartzea eskatzen dute, pertsona guztiek gutxieneko diru-sarrera hori hamalau ordainsaritan jasoko dutela bermatzeko.

Proposamena irakurri ondoren, Batzarre Nagusiaren Osoko Bilkurak eskaerak babestea erabaki du eta, ondorioz:

1.- Nafarroako Gobernuari eta Parlamentuari 2024tik aurrera pentsiodunen pentsioa 14 ordainsaritan 1.080,00 eurora arte osatzeko behar den aurrekontu-partida gaitzeko eskatzea.

2.- Batzarre Nagusi honen babesa adieraztea "1.080 € Orain" kolektiboaren aldarrikapenei eta, zehazki, pentsioetan dagoen genero arrakala ezabatzeari.

3.- Nafarroako Gobernuari eta Parlamentuari osoko bilkurak hartutako erabakiaren jakinarazpena bidaltzea.

9.9- Bilerarako deialdia: "Pirinioetako STADaren kudeaketaren egungo egoera eta hitzarmenak sinatu aurreko urratsak"

Otsailaren 15ean, 15:00etan, Aezkoako Etxean, bilera bat egingen da, Jasangarritasun Turistikoaren Planaren kudeaketari buruzko hitz egiteko. Honako gai zerrenda hau izanen du:

- Proposamenak eta memoriak: bidalitako memorien iruzkinak.
- Gauzatze-kronograma: gauzatze egutegiaren aurkezpena. 2024ko laugarren hiruhilekorako proiektua gutxienez % 30ean gauzatuta egon behar du, baina ahalik eta lasterren gauzatzea gomendatzen da.
- Komunikazio plana.
- Garrantzitsua da proiektuaren aurrekoa eta ondorengoa islatzea, adierazleak lortu direla justifikatu ahal izateko.
- GNSH eta Etiketa klimatikoak/digitalak: TRAGSATECetik ebaluatuko da betetze-maila, eta ingurumen araudia betetzearen erantzukizunpeko adierazpena sinatu behar da.
- Osoko bilkuraren erabakia: bi zirriborro bidaliko dira, bat proiektuaren onespina osoko bilkuran jasotzeko eta, bigarrena, hitzarmenaren onspina islatzeko.
- CEDERNaren eta udalaren arteko hitzarmena.
- Coffee tresna.
- Iruzurraren aurkako plana.
- Baimenak. Izapidearekin hasi.

Batzarre Nagusia jakinaren gainean dago.

9.10- Mugaz gaindiko lankidetzaz jardueretarako dirulaguntzak

Laster argitaratuko da NAO-n, eta % 100erainoko finantzaketa aurreikusten du, 5.000,00 €-ko mugarekin proiektu bakoitzeko, toki-erakundeek garatutako mugaz gaindiko lankidetzaz proiektuetarako. Proiektu horiek mugaz

gaindiko harremanak garatzen eta sendotzen lagunduko dute turismoari, ingurumenari, despulazioari, kulturari eta abarri dagokienez, eta diruz lagun daitezkeen ekintzak honako hauek izan daitezke: kirol ekitaldiak, gazteen trukeak eta hezkuntza trukeak, mugaz gaindiko esperientziak zabaltzeko ekitaldiak, turismo eta merkataritza azoketan parte hartzea, eta abar.

Erabaki da Garaziko sindikatuarekin aztertzea Bortuaren Eguna laguntza deialdi honetara aurkeztea bidezkoa izan daitekeen.

9.11- Beste batzuk

- Batzarreburu jaunak adierazi du balorazio ekonomiko bat eginen dela duela zenbait urte hasi zen ibarreko toponimiaren proiektuari berriro ekiteko eta hura amaitzeko; berrikuspen oso bat egin behar da, eta digitalizatu ahal izateko baldintzak ikusi.

- Urrobi Partzuergoari dagokionez, berriz ere bilerak eginen dira Nasuvinsarekin, Urrobi Partzuergoan parte hartzeko aukera berresteko, estatutuen zirriborroa ezartzeko. Artxua nabea erosteko aukera ere aztertu behar da, eta azken urteotan egin diren obra guztiak berrikusi.

HAMARGARRENA.- GALDERAK ETA ESKEAK

Ez da galde-eskerik egin.

Eta aztertzeko gai gehiagorik agertu ez baita, bilkura bukatutzat eman da goian adierazitako eguneko arratsaldeko hirurak zirela. Esandakoa jasotzeko akta hau luzatu da, eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.



**JUNTA DEL VALLE DE AEZKOA
AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIA**

31671 ARIBE (Navarra) • CIF: P3175000C

Tel: 948 76 43 75

junta@aezkoa.net

valledeaezkoa@gmail.com

www.aezkoa.org

Ariben, 2024ko apirilaren 4an, eguerdiko hamabi eta erdietan, Aezkoako Batzarre Nagusiak bilkura arrunta egin du, lehenengo deialdian, legez deituta, haren presidente titularrak zuzenduta eta jarraian adierazten diren kideak bertan zirela, eguneko honako gai hauek aztertzeko:

BILDUTAKOAK

Batzarreburu jauna: Karlos Bueno Reka

Batzarrekide jaun/anderak: Anchorena Laurenz, Francisco Javier - Galarza Larrayoz, Maria Carmen – Merino Iriarte, Juan Esteban – Zabalza Barberena, Izaskun.

LEHENENGOA.- AURREKO BILKURAREN AKTA ONESTEA.

2024ko otsailaren 12an egindako bilkuraren akta onetsi da, eragozpenik agertu ez baita.

BIGARRENA.- 2023 OIHAN PLANeko ENKANTEA

Aurreko bilkuran Batzarre Nagusiaren Osoko Bilkurak erabakitakoari jarraikiz baso enkantea eginda, enkantearen emaitzaren berri eman da:

1. loteari dagokionez (Gibelea alderdian dago, eta hasiera batez 101.430,82 €-an baloratuta dago), hiru enpresek aurkeztu zuten eskaintza, jarraian adierazten diren zenbatekokoak:

- Arpana formación Forestal	173.880,00 €
- Maderas Barbiur SL.	150.000,00 €
- Maderas Larreta	135.455,00 €

2. loterako (Paraisos inguruan dago eta 66.621,10 € balio du) honako eskaintza hauek aurkeztu ziren:

- Maderas Barbiur SL:	123.680,00 €
- Maderas Larreta:	67.000,00 €

Baso loteak behin-behinean esleitu zitzaizkien eskaintza ekonomiko handiena aurkeztu zuten eskaintzaileei, eta seirena hobetzeko epean eskaintza hobeagorik aurkeztu ez zenez, behin-behineko esleipena behin betiko bihurtu zen. Beraz, loteak honako eskaintzaile hauei esleitu zaizkie, ondoren adierazten diren zenbatekoetan:

<u>Lotea</u>	<u>Esleipenduna</u>	<u>Hasierako tasazioa</u>	<u>Esleipena</u>	<u>% Igoera</u>
1	Arpana formación Forestal	101.430,82 €	173.880,00 €	71,43%
2	Maderas Barbiur SL	66.621,10 €	123.680,00 €	85,65%

Batzarre Nagusia jakinaren gainean gelditu da. Bestalde, Batzarreburu jaunak jakinarazi du datorren astean Paraisos alderdia ustiatzen hastea aurreikusi dela, turismo gehien biltzen den denboralditik kanpo ekainean amaitzeko asmoz. Gainera, baso ustiapena amaitu baino lehenago Irabiako

pista hobetzeko lanei ekin behar izanez gero, enpresa esleipendunak konpromisoa hartu du lanak eten eta datorren urtean jarraitzea egurraren ustiapenarekin.

HIRUGARRENA.- LANGABEAK KONTRATATZEKO DIRULAGUNTZAK. ARAUTEGI BERRIA.

Jakinarazi da laster argitaratuko dela 2024rako langabetuak kontratatzekeo laguntzak eskatzeko kreditu-gaikuntza. Osoko Bilkurak baditu, dagoeneko, espedienteak onartuta. Laguntza horiek arautzen dituzten oinarri berriak ere argitaratuko dira. Aldaketa horiek eraginen diete NAOn argitaratzen denetik aurrera egiten diren kontratuekin lotutako eskaerei. Argitaratuko diren aldaketei buruz daukagun informazioa honako hau da:

- Egin beharreko obra eta zerbitzuen baldintzak: aurkezten den obra/zerbitzuen proiektuak autonomia izan behar du erakundearen jardueraren barruan, ohiko zereginetatik bereizi behar da eta justifikatu egin behar da.

- Enplegu Agentziak aurrez hautatutako pertsonen zerrenda: izapidetze bera jarraituko da lan eskaintzaren bidez, eta erakundeak kontratazio proiektuak onartu eta hautaketa egin beharko du, orain arte bezala.

- Kontratu beharreko pertsonen bete beharreko baldintzak: Deialdi honen babesean dagoeneko kontratatuak eta diruz lagunduak izan diren pertsonen kontratazio-betekizuna aldatu da: orain arte, indarrean dagoen urtean eta aurrekoan tokiko erakunde berak kontratatuak izan diren pertsonen eragiten zien. Aldaketa uneko urtearekin eta aurreko biek onetsiko da, bai eta Nafarroako Foru Komunitateko edozein toki-erakundetaren ere, A taldeko pertsonen dagokienez izan ezik; kasu horretan, salbuespenik gabe kontratatu ahal izanen da.

- Aurreikusitako talde batzuk beste modu batera kokatuta daude; adibidez, A taldean ez dira sartzen 51 urtetik gorakoak, 55 urtetik gorakoak baizik.

Aldaketa horiek datozen egunetan argitaratuko dira NAOn, eta, ondoren, 2024. urteari dagozkion dirulaguntzak eskatzeko epea irekiko da. Oraingoan, Batzarre Nagusiak lehen bi kontratazioak eginak ditu, Kultur Olarako pertsona bat eta Baso Lanetarako pertsona bat, eta Baso Lanen bigarren kontratazioa egiteke dago.

Ikusiko da, erregulazio berri horrekin kontratatutako pertsonen profilararen arabera aurreikusitako kontratazio guztietarako dirulaguntzarik dagoen.

Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.

LAUGARRENA.- JTLP(JASANGARRITASUN TURISTIKOAREN LURRALDE PLANA): AURRIKUSITAKO JARDUKETEI BURUZKO INFORMAZIOA; JASANGARRITASUN PLANEAN SARTZEKO AKORDIOA, BIDEZKOA BADA.

AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIAREN ETA CEDERNA-GARALUR ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA SINATzea, PIRINIOETAKO JASANGARRITASUN TURISTIKOAREN LURRALDE PLANEAN ,2023-2025, SARTZEKO, EUROPAR BATASUNAK - NEXT GENERATION EU-REN BIDEZ FINANTZATUTAKOAK.

Berrikusi dira azken hilabeteotan egin diren bileretan Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Lurralde Planari aurkeztutako proposamenak. Hasiera batean, Irabiako pista hobetzeko proiektua, Kultur Olako sukalde-tabernarako ekipamendua eta Aribeko harrera gunerakoak (orain arte Batzarre Nagusi honek sustatutakoak) deialdi honetan sartzeari buruz hitz egin

zen. Hala ere, harrera-gunearen proiektuari dagokionez, izapidetze oso luzea izanen dela aurreikusten da, eta oraindik ez da akordio irmorik lortu udalarekin. Beharrezkoa izanen da baimenak lortzea eta azterketa espezifikoa egitea, ibaiaren ertzean dagoen eremu bat delako, eta uholdeak azpiegitura horretaraino irits daitezkeelako. Horrek guztiak atzerapen handia ekarriko du, eta obrak justifikatzeko epeak betetzea eragotziko du; eta, beraz, Aribeko harrera guneari hasiera batean esleitutako funtsek Irabiako pista hobetzeko proiektua handitzeko balio dezakete.

JTLP osoaren barruan, eremu osoan aurreikusitako jarduketak guztien % 30 gutxienez, lehenengo urte honetan gauzatu behar da. Batzarre Nagusi honen proiektuei dagokionez, sukaldearena osorik gauzatu dago; eta, Aribeko harrera guneari dagokionez, hasierako memoria baino ez dago idatzita, Irabiako pistaren azpiegiturak hobetzeari buruzkoarekin gertatzen den bezalaxe.

Gaia eztabaidaturik, Europar Batasuna-Next Generation EUk finantzaturako 2023-2025 aldirako Pirinioetako Turismo Jasangarritasuneko Planean sartu beharreko proiektuei dagokionez, Osoko Bilkurak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- PSTD-Pirineoko Cederna-Garalur teknikaren bidez aldaketa proposamen bat helaraztea Pirinioetako Batzorde Teknikoari, Irabiako pista hobetzeko proiektura bidera dezan hasiera batez Aribeko harrera gunerako esleitutako zenbatekoa.

Aldaketa hori onartuz gero, Batzarre Nagusiak aztertuko du, baimen guztiak eskuratu ondoren eta Aribeko Udalarekin adostu ondoren, Aribeko harrera gunea (horren barnean, aparkaleku bat egitea) egiteko proiektua beste laguntza deialdi batera aurkezten duen.

BIGARRENA.- Ikusi da «Irabiako pistako eta Arrazolako harrera guneko azpiegituren hobetzea» izeneko memoria baloratua, 2019ko apirilaren 11koa, Aezkoako Batzarre Nagusiak sustatua eta Lur Geroak idatzia. Memoria horrek honako jarduketak hauek biltzen ditu: Irabiako pistan (Mendilatz aterpetxearen eta urtegiko aparkalekuaren artean) egin beharreko hobekuntzen eta/edo konponketen definizioa, xehetasunak eta aurrekontuen memoria, eta Arrazolako aparkaleku nagusiarena ere. Helburua da azpiegitura hori egoera onean mantentzea, oihan loteak baldintza egokietan atera ahal izateko eta turismoak Irabiako urtegira sartu ahal izateko. Aurrekontu hori indarrean dauden prezioak kontuan hartuta eguneratuko da, eta barne hartuko ditu gehienez ere 560.000,00 €-ko zenbatekoa eginen duten jarduketak, behin betiko proiektua idazteko eta obrak zuzentzeko ordainsari teknikoak barne. Batzarre Nagusiko Osoko Bilkurak, bildutakoen aho batez, ERABAKI DU:

1.- Onestea Irabiako pistako eta Arrazolako harrera guneko azpiegituren hobetzea izeneko memoria baloratua, 2019ko apirilaren 11koa, Aezkoako Batzarre Nagusiak sustatua eta Lur Geroak idatzia. Memoria horrek honako jarduketak hauek biltzen ditu: Irabiako pistan (Mendilatz aterpetxearen eta urtegiko aparkalekuaren artean) egin beharreko hobekuntzen eta/edo konponketen definizioa, xehetasunak eta aurrekontuen memoria, eta Arrazolako aparkaleku nagusiarena ere. Helburua da azpiegitura hori egoera onean mantentzea, oihan loteak baldintza egokietan atera ahal izateko eta turismoak Irabiako urtegira sartu ahal izateko. Batzarre Nagusik honek onartutako aldaketa eskaera onartuz gero, memoria hori eguneratu eginen da, eta behin betiko proiektua idatziko du, indarrean dauden prezioak erabiliz,

gehienez ere 560.000,00 €-ko zenbatekora arte (proiektua idazteko eta obrak zuzentzeko ordainsari teknikoak barne). Zenbateko hori memoria honetarako hasieran aurreikusitakoa eta Aribeko harrera-gunearena batuta ateratzen da.

2.- "Irabiako pistan eta Arrazolako aparkalekuan azpiegiturak hobetzea, turismo jasangarria eta kalitatezko oihan-ateratzea sustatzeko" izeneko obra PIRINIOETAKO HELMUGAKO JASANGARRITASUN TURISTIKOKO 2023-2025 PLANAREN barruan sartzeko eskatzea.

Jarduera hori honakoekin bat dator: 2. ardatzarekin (Energia eraginkortasuna hobetzea) eta 4.1.2 jarduerarekin (Irabiako pistaren eta Arrazolako harrera gunearen azpiegitura hobetu). Aurrekontua: 560.000,00 €. 073 etiketa klimatikoa, % 100eko ekarpena.

3. – Batzarreburuari edo haren legezko ordezkoiari ahalmena ematea, eskaera egiteko eta horretarako behar diren kudeaketak egiteko, baita Aezkoako Batzarre Nagusiaren eta Cederna-Garalur elkartearen arteko hitzarmena sinatzeko ere, Pirinioetako Jasangarritasun Turistikoaren Lurralde Planean ,2023-2025, sartzeko.

4.- Cederna Garalur elkarteari erabaki honen berri ematea.

HIRUGARRENA.- Ikusi da Aezkoako Batzarre Nagusiak sustatutako "Kultur Olako sukalde-ekipamendua" izeneko jarduketaren memoria. Bertan jasota daude Kultur Olako taberna-jatetxea hornitzeko kontratuaren barruan egindako jarduketak eta puntu hori abian jartzeko beharrezkoak direnak ere. Batzarre Nagusiaren Osoko Bilkurak, bertaratutako guztiak bat etorrita, honako hau ERABAKI DU:

1.- Onestea "Kultur Olako sukaldeko ekipamendua" izeneko memoria baloratua eta hura abian jartzeko beharrezko jarduerak.

2.- Memoria hori 2023-2025 PIRINIOETAKO HELMUGAKO JASANGARRITASUN TURISTIKOKO PLANAREN barruan sartzeko eskatzea.

Jarduera bat dator planeko ardatz hauekin: 4. Ardatzarekin, lehiakortasuna; 12.2 jarduketarekin, eskaintza gastronomikoa bultzatzeko plana; 12.1.2 ekintzarekin, Kultur Olako sukaldeko ekipamendua. Aurrekontua: 71.435,00 €. Ez du etiketa klimatikorik.

3. – Batzarreburua edo haren legezko ordezkoiari ahalmena ematea, eskaera egiteko eta horretarako behar diren kudeaketak egiteko.

4.- Cederna Garalur elkarteari erabaki honen berri ematea.

LAUGARRENA.- Aezkoako Batzarre Nagusiak sustatutako "Auto elektrikoak kargatzeko estazioak" izeneko jardueren memoria ikusita, ERABAKI DA:

1.- Auto elektrikoak kargatzeko estazioak instalatzeko aurrekontua onartzea".

2.- Hori 2023-2025 PIRINIOETAKO HELMUGAKO JASANGARRITASUN TURISTIKOKO PLANAREN barruan sartzeko eskatzea.

Jarduera hau 4. ardatzari dagokio: Lehiakortasuna, 11.1 jarduketa- Produktua sortzea eta Pirinioetako turismo-lehiakortasunerako plana: 11.000,00 €. Etiketa klimatikorik gabe.

3. – Ahalmena ematea batzarreburuari, edo haren legezko ordezkoiari, eskaera egiteko eta horretarako beharrezkoak diren kudeaketak egiteko, baita Aezkoako Batzarre Nagusiaren eta Cederna-Garalur elkartearen arteko hitzarmena sinatzeko ere, Pirinioetako Jasangarritasun Turistikoaren Lurralde Planean ,2023-2025, sartzeko.

4. – Akordio hau helaraztea cederna Garalur Elkarteari.

Jakinarazi da iruzurraren aurkako planari buruzko beharrezko jarduerak izapidetzeke daudela, Minerva plataformaren eta Coffee plataformaren bidez. Coffee plataforma Cederna-Garalur Elkartearen teknikak lantzen ari da Ministerioarekin.

Irabiako pistaren proiektua handitzeko dirulaguntza transferitzea onartuko balitz, jarduketaren zenbatespena honela banakatuko litzateke:

Obren exekuzio materialaren aurrekontua	
367.400,00	
% 16 gastu orokorrak eta industria etekina	58.784,00
Batuketa partziala	426.184,00
BEZa, % 21	89.498,64
Obrak, guztira	515.682,64
Proiektua idaztea eta obrak zuzentzea (IHPren % 10)	36.740,00
BEZa, % 21	7.715,40
Proiektuaren ordainsari teknikoak, guztira:	44.455,40 €
GUZTIRA:	560.138,04 €

BOSGARRENA.- AUTOKARABANENTZAKO GUNEETARAKO ARAUTEGI BERRIA

Nafarroako Aldizkari Ofizialean martxoaren 22an argitaratu zen araudi berri bat, Nafarroako Foru Komunitatean autokarabanen, karabanen eta antzekoen turismo ibiltariaren gaua igarotzeko eremu guztiei eragiten diena.

Gaua igarotzeko hiru kategoria ezarri dira: oinarrizkoa (gehienez 20 plaza), plusa (gehienez 40 plaza) eta osagarria (turismo-jarduera bati edo establezimendu bati lotuak, eta oinarrizko kategoriakoak edo plusekoak izan daitezke, dituzten zerbitzuen mailaren arabera).

Guztiek bete beharreko baldintza tekniko orokorrak dituzte perimetro-itxiturari, bideei, argiztapenari, seinaleztapenari, sarbideen kontrolari, bereizgarriari eta zerbitzu eta instalazioei dagokienez.

Osoko Bilkurak erabaki du baldintza guztiak berrikustea eta zehaztea zer jarduketa egin behar diren araudi honetan ezarritakoa betetzeko, inskribatu eta jendearentzat ireki aurretik. Bereziki, edateko uraren puntu bat jartzeko aukera ikusi behar da, edo edangarri bihurtzeko sistema bat onargarria ote den; halaber, dutxaren neurriak egiaztatu behar dira, minusbaliotasuna duten pertsonen egokitzeko eta dutxa bat gehiago jartzeko, bai eta ur andela osagarriak ere.

SEIGARRENA.- IRABIAKO PISTAN JTLP (JASANGARRITASUN TURISTIKOAREN LURRALDE PLANA) JARDUKETEN PROIEKTUA ETA ZUZENDARITZA IDAZTEA.

Bilkura honetako laugarren puntuan zehaztutakoaren arabera, eta Aribeko harrera-gunerako aurreikusitako kredituak Irabiako pistako azpiegiturak hobetzeko proiektura eta Arrazolako harrera-gunera transferitzea onartuko delakoan (560.000,00 €-ko gehieneko zenbatekora arteko jarduketak barne, behin betiko proiektua idazteko ordainsari teknikoak eta obren zuzendaritza barne), Batzarre Nagusiaren Osoko Bilkurak honako hau erabaki du: Ministerioak PRTR funtsetarako eta, zehazki, helmugako jasangarritasun turistiko planeko jarduketetarako gaitutako plataformen bidez behar den aurrefiazko izapidetzea egin ahal izan ondoren:

- Irabiako pistako azpiegiturak hobetzeko proiektua idazteko zerbitzu-kontratua esleitzeko lizitaziorako deia egitea, eta, hala badagokio, obren zuzendaritza fakultatiboa eta Segurtasuna eta Osasuna koordinatzea.

- Ikusita ordainsari teknikoetarako aurreikusitako zenbatekoa hogeita hamasei mila zazpiehun eta berrogei eurokoa dela, BEZik gabe, (36.040,00 €) kontratua lizitatzeko eta esleitzeko prozedura, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 80. artikuluan xedatutakoaren arabera, prozedura sinplifikatua erabiliko da:

Prozedura sinplifikatuan, kontratazio-organoak eskaintza eskatzen die hainbat enpresa edo profesional gaituri, eta kontratua arrazoituta esleitzen du. 60.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten zerbitzu- eta hornidura-kontratueta eta 200.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten obra-kontratueta bakarrik erabili ahal izanen da. Kontratazio-organoak, ahal den guztietan, kontratua gauzatu dezaketen 5 enpresa edo profesionali gutxienez eskatuko dizkie eskaintzak.

Kontratuaren prezioaren barruan proiektua idaztea eta, hala badagokio, obren zuzendaritza fakultatiboa sartzen dira, betiere obrak benetan esleitzearen baldintzapean.

Osoko Bilkurak kontratuaren lizitazioa eta esleipena arautuko duen baldintza-agiria onartu du, eta akta honi atxiki zaio eranskin gisa.

Espediente hau izapidetuko da lizitazioaren aurreko jarduerak egin behar diren plataformen erabilgarritasuna Batzarre Nagusi honi jakinarazten zaion unean.

ZAZPIGARRENA.- OIHAN-LOTEEN KALTEAK AITORTZEKO AKTAK. EGOERA. FIDANTZEN ITZULTZEA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

Oihan loteen ateratzea amaitu ondoren, kalteen ikuskaritza egiten da eta datuak azterketa-aktan jasota daude. Bertan agertzen dira eragindako kalteak, esaterako, botatako beste zuhaitzak, pistetan egindako nahiz egiteke dauden konponketak. Esleipendunak, berriuspena egiten duten mendietako langileek eta Ibarreko Batzarre Nagusiak sinatu behar dituzte aktak. Ondoren, aktaren edukia Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez onartzen da. Hala ere, duela urte batzuetatik hona, ez da jaso sinatutako eta Departamentuari bidalitako akten onarpenik; beraz, ez da izapidetu fidantzen itzultzea eta zuhaitz gehigarrien ordainketa. Horrek egoera ekonomiko konplexua dakarkie bai zurgileei, baita Batzarre Nagusiari ere; izan ere, egiteke dauden akta guztiak onartuz gero, azkenak itzuli beharko luke gordailuan duen diru-kopuru handia. Ikusirik eskaera ugari egin direla, egiteke dauden akten onarpena arindu dadin (oraindik ebatzi gabe daude) eta duela urte batzuetatik hona fidantzak gordailututa dituztenei kalte ekonomikorik ez eragiteko, Batzarre Nagusiari proposatu zaio itzultzen hastea kalterik ez duten espediente horien kasuan. Egiteke utzi dira zuhaitz gehiago bota izanaren edo pistetan kalteak iragan izana adierazten dituztenak, horiek ebatzi arte. Gai hori zuraren arloko hainbat enpresekin landu da, eta enpresa horiek aitortu dute fidantza gisa hainbat toki-erakundetan atxikita ditutela diru-kopuru handia.

Osoko Bilkurak erabaki du, antzinatasunaren arabera, baso-loteen fidantzak itzultzen hastea, baldin eta lote horien aitortpen aktetan jaso ez bada kalterik edo zuhaitz gehiago bota ez izana. ik. erantsita, arintasun handiagoa bermatzeko eta eragindako enpresei kalte ekonomikorik ez egiteko.

ZORTZIGARRENA.- ADMINISTRARI LAGUNTAILEAREN KONTRATUA: ORAINGO EGOERA ETA HORRI BURUZKO PROPOSAMENA

Administrari laguntzailearen kontratua lanaldi osora zabaldu zen kudeaketa agindu bat betetzeko. Horren epealdia bukatutakoa, presidenteak proposatu du % 100eko lanaldiarekin jarraitzea abendura arte, langileak egin ahal izan ditzan orain arteko kudeaketa administratiboa eta Kultur Olako bisitarien artatzea. Gaia interesdunarekin hitz egin da, eta ados dago. Datorren urteko plantillari begira, abenduan zehaztuko da zer egin plazarekin.

Une honetan administrazio kontratu bat da, harik eta lanpostua modu iraunkorrean betetzen den arte, eszedentziagatik lanera itzultzeko epea amaitu arte. Beraz, berariazko deialdi bat egin beharko da.

Batzarre Nagusiak lanaldiarekin % 100ean jarraitzea erabaki du, proposatutakoaren arabera, abendura arte (abendua barne). Aurrekontu-zuzkidura berrikusiko da, hala badagokio, beharrezko doikuntzak egiteko.

BEDERATZIGARRENA.- ATF (Oihan lanen jarduerak) KONTRATUEN ALDAKETA: LOTEAK 1-BIRLANDAKETA ETA 2-UDAKO GARBIKETAK.

Jakinarazi da, landaketa-jardukeei (1. lotea – Baso-berritzea) uko egiteko eskaera izapidetu dela, lanen zuzendaritza teknikoak eskatuta; izan ere, eguraldiak eragotzi du landatu beharreko eremura sartzea eta lan kontratuei eragin die (udako garbiketak), leku berean egitekoak direlako udako garbiketen bidezko mantentze-lanak eta aurikusitako birlandatzeak. Lanek 9,75 hektarea hartzen dituzte.

1. lotea Excavaciones Mendizar enpresari esleitu zitzaion, eta 2. lotea, berriz, Hernando jaunari, eta haiekin hartu-emanak izan dira dagoeneko. Lanen hasierako aurrekontuari dagokionez, 1. Lotearena 40.405,47 €-koa izanen litzateke, BEZik gabe, eta enpresak eskainitako baja aplikatuko zaio. Lanak egiteko prezioa 44.451,96 €-koa izanen da, BEZik gabe (% 2,10eko beherapena).

2. lotearen hasierako aurrekontua 4.165,32 €-koa izanen litzateke, BEZik gabe, hau da, 4.159,49 €- lanak egiteko, eskainitako baja aplikatuta (% 0,14ko baja).

Osoko Bilkurak berretsi du aurkeztutako ukoa, ezin zelako bermatu lanak ezarritako epean behar bezala eginen zirenik, izandako eguraldiagatik.

HAMARGARRENA: NPB (PAC), AURREKONTUAREN EXEKUZIOAREN EGOERA, BESTE BATZUK

- NPB (PAC)

NPBrako kanpaina hasi ondoren, bazkaleku eremuei egindako alegazioak partzialki onartu direla jakinarazi da; zati bat guztiz onartu da, alegia, dirulaguntzetarako koefizientea aldatzea (6.1.1, 6.1.17 eta 7.5.6 lur-zatiak); beste batzuetan partzialki onartu da (4.1.1 eta 9.1.4 lur-zatikak); eta ezezkoa eman zaio 5.1.1 lur-zatiaren % 100era aldatzeko eskaerari.

Dagoeneko egin da hektareen hasierako banaketa, eskatzaile guztien artean; horri dagokionez, adierazi behar da aurten zenbait pertsonak eskatu dutela aurreko kanpainetan esleitutako hektareak handitzea, eta abere-karga nahikoa dutela eskatutako kopuruak esleitzeko, gainerako onuradunen indizea kontuan hartuta. Aitorpena martxoaren 29an aurkeztu da, eta itzulketak egin arte itxaron beharko da, banaketa berriak egin ahal izateko.

Batzarre Nagusia jakinaren gainean dago.

- Aurrekontuaren exekuzioa. Egoera.

Aurrekontu arruntaren gauzatze egoera aurkeztu da, partidak eta lotura poltsa dituen. Horri dagokionez, adierazi da aurrekontuan aldaketak egitea aurrekusi behar dela, inbertsioak gauzatzeko benetako aukerara egokitzeko. Gai horri buruzko informazioa emanen da aldian-aldian.

- Irati Elkartearen dirulaguntza eskaera.

Bere garaian sinatutako hitzarmenarekin bat etorriz, 2024. urterako laguntza eskaera aurkeztu da. Batzarre Nagusi honen aurrekontuan mila eta berrehun euroko aurreikuspena dago. Eskabidearekin batera, aurreko ekitaldiko kontuen likidazioa aurkeztu da. Laguntza ohiko moduan ordainduko da.

- Oihan kudeaketari buruzko hitzaldia.

Kultur Olako langileak proposamena egin du, basoen kudeaketari buruzko hitzaldia antola dadin, herritarrei eta turistei zuzendutakoa. Basozaintza Zerbitzuak interesa agertu du, eta jakinarazi du, antolatzeko, ofizialki eskatu behar dela.

Osoko Bilkurak erabaki du Ingurumeneko Departamentuari eskatzea, eskualdeko zerbitzuaren bidez.

- Ondare-erantzukizuneko espedientearen errekurtsioa.

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak egindako helarazpenaren berri eman du. Salak adierazi du, Batzarre Nagusi honi aurkeztutako ondare-erantzukizunaren erreklamazioaren ustezko ezestea (administrazioaren isiltasunagatik) dela eta, ez duela aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsioari buruz jakiteko eskumenik.

Gogorarazi da gai hau 2022ko ekainean Orbaizetako munizio olaren inguruan hildako emakumearen kasuarekin lotuta dagoela.

Orbaizetako munizio olaren inguruan, 2022ko ekainean, olara sarbidea ematen duen errepidearen eskuineko ertzetik erreklara erori zen emakume bat hil izanari buruzkoa da errekurtsioa.

Hasierako erreklamazioa 2022ko abenduan aurkeztu zen Batzarre Nagusi honetan. Bere garaian, aseguruarekin jarri ginen harremanetan, espediente hau zela eta.

Osoko Bilkurak erabaki du espedientea Biderkari bidaltzea, hark aztertzeko, eta, hala badagokio, dagokion idazkia aurkez dezan.

HAMARGARRENA.- GALDERAK ETA ESKEAK

Ez da galde-eskerik egin.

Eta aztertzeko gai gehiagorik agertu ez baita, bilkura bukatutzat eman da goian adierazitako eguneko arratsaldeko hirurak eta hogeita hamar minutuak zirela. Esandakoa jasotzeko akta hau luzatu da, eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.



**JUNTA DEL VALLE DE AEZKOA
AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIA**

31671 ARIBE (Navarra) • CIF: P3175000C
Tel: 948 76 43 75
junta@aezkoa.net
valledeaezkoa@gmail.com
www.aezkoa.org

Ariben, 2024ko ekainaren 11n, eguerdiko hamabi eta erdietan, Aezkoako Batzarre Nagusiak bilkura arrunta egin du, lehenengo deialdian, legez deituta, haren presidente titularrak zuzenduta eta jarraian adierazten diren kideak bertan zirela, eguneko honako gai hauek aztertzeko:

BILDUTAKOAK

Batzarreburu jauna: Karlos Bueno Reka

Batzarrekide jaun/anderak: Anchorena Laurenz, Francisco Javier - Galarza Larrayoz, María Carmen – Merino Iriarte, Juan Esteban – Zabalza Barberena, Izaskun.

LEHENENGOA.- AURREKO BILKURAREN AKTA ONESTEA.

Onartzeke gelditu da aurreko ilkuraren akta, PSTD. 2 proiektuekin lotutako puntuen erredakzioa berrikusi eta azken idazketa egin arte.

BIGARRENA.- IRUZURRAREN AURKAKO BATZORDEA IZENDATZEA

2023an, Batzarre Nagusiak erakundearen Iruzuraren aurkako Plana onartu zuen, Aezkoako Batzarre Nagusiaren eremuan Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan garatutako azpiproiektuei eta jardueri lotutako barneko nahiz kanpoko iruzurraren agerpena murrizteko, esleituta dituen iruzurraren arloko eskumenak – administratiboak soilik – kontuan hartuta, beti ere. Plan hori onartu zen, baina Iruzuraren aurkako Batzordea izendatu gabe gelditu zen. Diziiplina anitzeko kidek osatutako organoa da, Next Generation EB funtsen kudeaketan eta/edo gauzatzean inplikaturako unitate, departamentu, zerbitzu edo arloetako kideek osatututakoa.

Aurrekoa ikusita, Osoko Bilkurak erabaki du Aezkoako Batzarre Nagusiko burua izanen dela Iruzuraren aurkako Batzordearen edo Komitearen buru ere, eta Batzarre Nagusiko Idazkaritzari atxikitako langileek parte hartuko dutela, hots, erakunde horretako idazkariak eta administrari laguntzaileak.

HIRUGARRENA.- KULTUR OLAKO TABERNA-JATETXEAREN KUDEAKETAREN ESLEIPENA

Kultur Olako taberna-jatetxearen kudeaketa esleitzeko lizitazio espedientea amaituta, eskaintza bakarra aurkeztu zuen Gómez Sanz Iraide eta Lorea Loperena Iker sozietate irregularrak, lizitazio-plataforman jasota dagoen bezala. Kontratazio Mahaiak dagozkion balorazioak egin ondoren, kontratua sozietateari esleitzea proposatu dio Batzarre Nagusiarri. Horretarako, esleipenerako proposaturako enpresari dagokion dokumentazioa aurkezteko

errekerimendua bidali zion enpresa lizitatuazileari, eta dokumentazio hori dagoeneko aurkeztu da.

Lortutako puntuazioa, laburbilduz, 87,50 puntukoa da. Aurkeztutako eskaintza ekonomikoa eta ezarritako lizitazio-prezioa berdinak dira, hau da, 2.500,00 € urtean. Hona hemen puntuazioaren banakapena:

- Eskaintza teknikoa:	32,50
- Eskaintza ekonomikoa:	40,00
- Gizarte irizpideak:	5,00
Puntuak, guztira:	87,50 puntu.

Aurrekoa ikusita, Osoko Bilkurak erabaki du Gómez Sanz Iraide eta Loperena Lorea Iker sozietate irregularrari esleitzea Kultur Olako taberna-jatetxearen kudeaketa, eskainitako bi mila eta bostehun euroko zenbatekoan eta kontratazioa arautzen duten gainerako baldintzei eta aurkeztutako eskaintzari lotuta.

LAUGARRENA.- AUZI-ADMINISTRAZIO HELEGITEA, AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIAREN AURKAKOA, ONDARE ERANTZUKIZUNA DELA ETA.

Auzi-errekurtsoa jarri da, 135/2024 prozedura administrazioaren barnean, MA. Jiménez Ibiricu andrearen heriotzagatik Aezkoako Batzarre Nagusian izapidetutako erantzukizun-erreklamazioa administrazio-isiltasunez ezetsi izanaren aurka. Administrazioarekiko Auzien Salaren (41/2024) autoa jaso da. Auto horren bidez, errekurtsoa ez dela onartzen adierazten da, horretarako eskumenik ez duelako. Organo eskuduna Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegia da, txandaren arabera dagokiona hain zuzen ere. Bi alderdiek Iruñeko Epaitegi Dekanoan agertu behar dute, hamar eguneko epean, beren uziei eusteko. Ohartarazten zaie, halaber, epe horretan epaitegira agertzen ez badira, dagozkien ondorio-kalteak jasanen dituztela.

Jasotako jakinarazpena ikusita, Aezkoa ibarreko Batzar Nagusiaren Osoko Bilkurak honakoa ERABAKI DU:

1.- Epaitegi dekanon pertsonatzea, Aezkoako Ibarreko Batzarre Nagusiaren aurka ondare-erantzukizuna eskatzeko 2022ko abenduaren 29an aurkeztutako erreklamazioa isiltasunez ezetsi izanaren aurka jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoan.

2.- Gaiaren ordezkari eta zuzendaritza Joseba Compains Silva eta Marcos Erro Martínez letradu jaunei ematea.

BOSGARRENA.- OILAGORREN TXARTELAK 2024-2025

Batzarre Nagusiaren Osoko Bilkurak erabaki du 2024-2025 denboraldirako oilagorren ehiza errentan ematea, banakako txartelen sistemaren bidez. Ehiza Antolatzekeo Planean baimendutako kupo osotik (21 txartel) saltzeko 19 txartel iragarri dira. Txartel bakoitzaren prezioa zazpiehun eurokoa da (gehi BEZa). Iragarri hori Nafarroako Aldizkari Ofizialera igorriko da, iragarria argitaratu, eta hogeitau egun balioduneko epea emanen da eskaerak aurkezteko.

Txartelak esleitzeko, aurreko kanpainarako zehaztutako puntuazio hurrenkerari jarraituko zaio. Sistema hori egin ondoren txartel hutsak geratzen badira, ondoren eskatzen dituztenei esleitzeko zaizkie, eskaera ordenari jarraikiz. Indarrean diraute aurreko denboraldirako ezarritako gainerako baldintzek.

SEIGARRENA.- GOIARGI ETA LURARGI KOMUNITATEETARA ATXIKITZEA

Aezkoan sustatu diren bi energia-komunitateri Batzarre Nagusia atxikitze proposamena aurkeztu da. Alde batetik, Orbaizetako Lurargi Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Kooperatiba Elkarte, eta, bestetik, Goiargi Gizarte Ekimeneko Kooperatiba Sozietatea, helbidea Abaurregainan duena. Azken horrek Batzarren Nagusi honi helarazi dio bazkide laguntzaile gisa parte hartzeko gonbidapena.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, honako hau erabaki du:

1- Goiargi kooperatiban bazkide laguntzaile gisa parte hartzea. Kooperatibaren helburua da energia-trantsizio iraunkorra bultzatzea, karbono-aztarna murrizteko. Erakunde kontsumitzailea ez denez, urteko kuota ordaintzetik salbuetsita dago. Kapital sozialari hirurogei euro eman behar zaizkio, bazkide laguntzaile gisa. Erabaki hori Kontseilu Errektoreari jakinaraziko zaio, kooperatiban sartzeko eskaera izapidetu dezan.

2- Lurargi kontsumitzaile eta erabiltzaileen kooperatiban bazkide gisa parte hartzea, eta kapital sozialarentzat hirurogei euroko ekarpena egitea, aurreko kasuan bezala. Kasu honetan, berriz, Batzarre Nagusia kontsumitzailea eta erabiltzailea da.

ZAPIGARRENA.- DIRULAGUNTZA ESKARIAK: ABELTZAINZA AZPIEGITURAK, PIRINIOETAKO PLANAREN JARDUKETAK ETA TURISMO INFORMAZIOA EMATEKO GUNEAK HOBETZEA.

Dirulaguntzen deialdi hauen berri eman da:

1.- Abeltzaintzako azpiegiturak hobetzeko dirulaguntzak: ibarreko abeltzainekin hitz egin zen bezala, ur-puntuak hobetzeko proiektu bat egin da, Eskandako iturburuaren hartunea hobetzeko, antzinako aska kentzeko eta beste bat altzairu herdoilgaitzez jartzeko (Eskandako parajeen ere). Proiektu honen zenbatekoa, 2024an eginen da, hamahiru mila ehun eta hiru euro eta hirurogeita bost zentimokoa da (13.103,65 €), laguntza teknikoa barne, eskatutako dirulaguntza lortuz gero.

2.- Pirinioetako Planari lotutako ekintzetarako toki erakundeentzako dirulaguntzak. Ekintza indibidualaren modalitatean aurkeztuko da Aezkoako Herri Lurrak eskualdatzeko eta haren balioa nabarmentzeko prozesu parte-hartzailea, bailara osatzen duten eta bailararen garapen sozial, ekonomiko eta lokalean eragiten duten elementu sozial, historiko eta ondarezkoen bidez. Proiektu hori bera aurkeztu zen hasieran batean parte hartzeko dirulaguntzen deialdira, baina finantzaketarik gabe geratu zen, aurrekonturik ez zegoelako. Aurrekontua 10.527,00 eurokoa da (BEZa barne).

Lankidetzako modalitatean, Arrazolako harrera eremuaren azken egokitzapenerako beharrezko inbertsioak jasoko dituen proiektu bat egiteko eskaera bat aurkeztea aurreikusi da, Orbaizetako Udalarekin batera egiteko.

3.- Informazio-guneak hobetzea

Kontsulta bat egin da laguntza deialdiaren barruan harrera gunean hobekuntzak egin daitezkeen ikusteko, eta ez soilik informazio gunean. Erantzuna ezezkoa izan da, hobekuntzak informazio etxolan bakarrik egin beharko lirateke, eta, beraz, aurreikusitako jarduketak, deialdia ateratzen bada, Pirinioetako planari lotutako inbertsioak diruz laguntzen dituen deialdian sartu beharko dira.

4.- Toki-erakundeentzako dirulaguntzak, autokarabanen, iragaitzako karabanen eta antzekoen turismo ibiltariko gaua igarotzeko eremuak ezartzeko. Autokarabanak. Dagoeneko harremanetan jarri gara autokarabanentzako zerbitzuen arloko proiektua egin zuen teknikariarekin, autokarabanentzako gaua igarotzeko eremuen erregulazio berria egin-eta, espazioa legedira egokitzeko beharrezkoak diren aldaketa guztiak jaso ahal izateko.

ZORTZIGARRENA.- TURISMO INFORMAZIO ZERBITZUKO LANGILEEN KONTRATAZIO-ALDIAK.

Zerbitzu desberdinetarako langileen kontratazio-aldiak berrikusi dira, informazio lanpostuetarako deialdia antolatuzko. Lehenik eta behin, Kultur Olan bigarren informazio lanposturako dei eginen zaie hautagaiei, izangaien puntuazioaren hurrenkerari jarraikiz. Eskainitako epea ekainaren 17tik abenduaren 16ra bitartekoa izanen da, sei hilabete, zerbitzua indartzeko eta irekitzeko ordutegiak mantendu ahal izateko.

Aribeko informazio-gunea uztailearen 15etik aurrera irekitzea aurreikusten da; beraz, hurrengo deialdia izanen da, eta horren kontratuak azaroaren 4ra arteko iraupena izanen du.

Gainerako langileak, beharrezkoa izanez gero, Arrazolako zerbitzua indartzeko izango lirateke, eta abuztuan kontratuak egiteko ahala aurreikusi da.

BEDERATZIGARRENA.- ZENBAIT

- Lankidetzako hitzarmena, Irati-Orreaga elkartearekin

Irati-Orreaga Landa Turismoko Elkarteak aurkeztutako proposamenaren berri eman da, Batzarre Nagusiak hitzarmen bat sina dezan, hasiera batean urtebeteko iraupena izanen duena. Hitzarmen horren bidez konpromisoa hartuko da Aezkoako biztanle bakoitzeko 1,5 euro finantzatzeko, eta, horren truke, elkarteak turismo-estrategiak diseinatuko ditu, turismo, ostalaritza, merkataritza eta tokiko produktuei buruzko aholkularitza emanen du, bai eta turismo-produktuak eta jarduera horri lotutako jarduerak sustatu ere.

Oraingoz, hitzarmenaren lehen zirriborroa dago, eta ibarreko udalen atxikimendua ezagutzea falta da, biztanleen arabera kopuru bera finantzatzeko luketelako.

- Garbiketa langilea

Aezkoako etxea garbitzeko pertsona bat hautatu dela jakinarazi da, aurretik kontratatutakoak erretiroa hartu duelako. Hautatutako pertsona I. Moreno izan da, ekainaren 13an lanpostuan hasiko dena. Euskararen balorazioari dagokionez, jakinarazi da plantilla organikoan ezarritakoa aplikatu dela, hau da, merezimendu gisa baloratu dela.

- Auñamendi Mankomunitatea

Jakinarazi da komunikazio bat jaso dela Mankomunitate honetako toki-erakundeetako idazkariekin bilera bat izateko, bi langilerengandik jaso dituzten soldata-erreklamazioak azaltzeko, gastu igoera handia ekarriko baitu. Osoko Bilkurari bileraren emaitzaren berri emanen zaio.

- Udalbiltza.

Batzarreburuak adierazi du dagoeneko Batzarre Nagusia izan daitekeela orain arte udalak soilik biltzen zituen erakunde horretako kidea; bailarako udalekin bilera bat eginen da, informazio hori helarazteko eta lankidetzan aritu nahi den ikusteko.

HAMARGARRENA.- GALDERAK ETA ESKEA.

Ez da galde-eskerik egin.

Eta aztertzeko gai gehiagorik agertu ez denez, bilera bukatutzat eman da goien adierazitako eguneko hirurak eta hogeita hamar minutuak zirela. Errandakoa jasotzeko akta hau luzatu da, eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.



**JUNTA DEL VALLE DE AEZKOA
AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIA**

31671 ARIBE (Navarra) • CIF: P3175000C
Tel: 948 76 43 75
junta@aezkoa.net
valledeaezkoa@gmail.com
www.aezkoa.org

Ariben, 2024ko abuztuaren 13an, eguerdiko hamabi eta erdietan, Aezkoako Batzarre Nagusiak bilkura arrunta egin du, lehenengo deialdian, legez deituta, haren presidente titularrak zuzenduta eta jarraian adierazten diren kideak bertan zirela, eguneko honako gai hauek aztertzeko:

BILDUTAKOAK

Batzarreburu jauna: Karlos Bueno Reka

Batzarrekide jaun/anderak: Anchorena Laurenz, Francisco Javier - Galarza Larrayoz, María Carmen – Merino Iriarte, Juan Esteban – Zabalza Barberena, Izaskun.

LEHENA.- AURREKO BILKUREN AKTAK ONESTEA

Eragozpenik ez da agertu, eta, beraz, onetsi dira apirilaren 4an eta ekainaren 11n egindako bilkuren aktak.

BIGARRENA.- TURISMO IBILTARIAN ARI DIREN AUTOKARABANENTZAKO GAUA IGAROTZEKO GUNERAKO DIRULAGUNTZA ESKATZEA.

Aurten, martxoaren 6ko 22/2024 Foru Dekretuaren bidez, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Nafarroako Foru Komunitatean barna turismo ibiltarian ari diren autokarabanek, bidaiari diren karabanek eta antzekoek gaur igarotzeko guneentzako arautegi berria, zenbait eremu motatarako baldintzak ezartzen zituena. Arau hori argitara eman zen Arrazolan autokarabanen gunea energia elektriko hornitzen duten ekipoak instalatzeko lanak emaitzen ari zirenean.

Ekainaren amaieran, Batzarre Nagusiak dirulaguntza eskaera bat aurkeztu zuen autokarabanek, bidaiari diren karabanek eta antzekoek gaur igarotzeko guneak prestatzeko toki-erakundeentzako laguntzen deialdian, eta autokarabanen eremuan bainu batzuk egiteko memoria bat ere.

Nafarroako Gobernuak gai honetarako kontratatutako enpresa batek geroago egindako bilera batean, toki entitateei azaldu zitzaizen malgutasuna egonen zela eremuak egokitzeko orduan, eta, beraz, irekita utzi zuten egungo komunak, handitu zitezkeenak, eremu berri horretarako erabiltzeko aukera. Hala ere, departamentuko teknikarien irizpidea desberdina da, eta bainugelak eremua mugatzen duen perimetroaren barruan egon behar dutela uste dute.

Horregatik guztiagatik, oraingoz, dirulaguntza eskatzeko espedientea geldirik dago, Batzarre Nagusiak proiektu hori azkenean gauzatuko den edo beste proposamen bat eginen den erabakitzearen zain. Une honetan ezinbestekoa da irizpideak argi izatea, geroago jarduketa berririk egin behar ez izateko. Hori dela eta, uste izan da komeni dela bilera bat egitea Turismo, Kultura eta Kirol departamentuko teknikariek, Arrazolako autokarabanen gaur igarotzeko eremuaren funtzionamendurako beharrezkoak eta nahikoak diren jarduketak erabaki ahal izateko.

HIRUGARRENA.- ITURRIOZKO UR HORNIDURAKO ZORTASUN BAIMENA, ORBAIZETAKO UDALAK SUSTATUA

Orbaizetako Udalak Ingurumen zuzendari nagusiak abuztuaren 6an emandako 649E/2024 Ebazpenaren berri eman dio Batzarre Nagusi honi. Ebazpen horren bidez, Orbaizetako edateko uraren hornidura hobetzeko eta handitzeko proiektuaren ingurumen-inkaktuaren txostena egin da (Iturriotz soluzioa, Udalak sustatua). Proiektuaren xedea da Iturriotz izeneko iturburuko ura hartzea bat egitea, eta lurpeko konexio bat egitea Iturroil iturburuarekin lotzeko, Orbaizeta, Orbara, Hiriberri eta Aria herrietarako edateko uraren hornidura hobetzeko eta zabaltzeko.

Orbaizetako edateko uraren hornidura hobetzeko eta handitzeko proiektuaren eremua, Iturriotz soluzioa, Aezkoa mendiko Kontserbazio Bereziko Eremuan (KBE) eta "Orreaga-Iratiko Oihana" Hegaztien Babes Bereziko Eremuan (HBBE) kokatzen da. Proiektuak GRT 8 "Txutxurieta-Azpegi" Mugaz Gaindiko Ibilbide Handiko ibilbideari eragiten dio, harekin bat egiten baitu kanalizazioaren ia ibilbide osoan.

Mendien Arautegia onartzen duen otsailaren 17ko 59/1992 Foru Dekretuaren 50. artikulua eta hurrengoaren arabera, obra Aezkoako Mendietan (Aezkoako Batzarre Nagusiaren jabetzakoa da) egitekoa denez, beharrezkoa da dagokion zorbidea baimentzea.

Behin onartuta, bidezkoa bada, dagokion ziurtagiria egingen da, udalak okupazioa gauzatu ahal izan dezan, eta, egoki iritziz gero, zortasun kanona ezarri ahal izanen da.

Kanalizazioaren trazaduran zehar egingen diren lanetarako moztu beharreko zuhaitzak Ingurumeneko Mendizainek markatuko dituzte, eta Batzarre Nagusiaren esku geratuko dira. Batzarre Nagusiak egur lote gisa esleitu ahal izanen ditu, edo zuzenean besterendu.

Zuhaitzak mozteko orduan, gainerako zuhaitzei kalterik ez egiteko moduan egingen da. Botatako zuhaitzak arrastaka ateratzean ezinen da erabili okupazio-zabalerari dagokion zerrenda baino espazio gehiago, eta, hortaz, banda horretatik kanpoko lurzorua berdin gelditu beharko du. Ez zaio eragin behar bide bazterretan dauden zuhaitzietan, bide horiek egonkor mantendu daitezten. Mozten diren zuhaitzen zati bat basoan geratu beharko da, bertan hildako egur kantitatea handitzeko eta hainbat fauna-espezieren habitata errazteko, bereziki ornogabeena eta hegaztiarena.

Osoko Bilkurak, espedientea ikusita, hots, aurrekariak eta bidalitako dokumentazioa, honako hau erabaki du:

1.- Orbaizetako Udalak sustatutako Iturriotz soluzioko ur-hornidura hobetzeko eta handitzeko bertan adierazitako lanak egiteko baimena ematea.

2.- Orbaizetako Udalaren alde urak bideratzeko lurpeko bide-zorra eratzea Orbaizetako udalerrian (Nafarroa) Aezkoako Batzarre Nagusiaren titulartasunpekoa den partzela honen gainean: 5. poligonoko 1. partzela.

Lurpeko bide-zorra legezkotzat, itxurazkotzat, jarraitutzat eta betikotzat joko da.

3.- Era berean, Aezkoako Batzarre Nagusiak bide-zorra eratzten du Orbaizetako Udalaren alde, adierazitako instalaziora iristeko Aezkoako Mendietan dauden bideetan barna ibiltzeko, instalazioa zaintzeko eta mantentzeko lanak egiteko eta, hala badagokio, trazaduran zehar sastrakak kentzeko, besteak beste, bada.

Alderdiek itundu dute zortasunak hitzarmena sinatzen den egunean hasiko direla indarrean, eta betiko eratzten direla; hau da, indarrean egonen dira ur-hornidurako linea erabilgarri dagoen bitartean.

4.- Ez da zortasun-kanonik eratzten.

5.- Erabaki hau jendaurrean jartzea, iragarki oholean, hamabost eguneko epean, interesdun orok alegazioak edo iradokizunak aurkez ditzan.

LAUGARRENA.- AURREKONTUA ALDATZEKO PROPOSAMENA: KREDITU GEHIGARRIA.

Urteko aurrekontuaren gauzatze egoera aurkeztu da, eta lotura poltsaren saldoa adierazi da. Aurrekontuaren orain arteko garapena ikusita, Gastuei buruzko 1. kapituluko partida hauetan zuzkidura nahikorik ez izatea aurreikusi da:

1.92001-1300002 – Administrari laguntzailearen ordainsaria, 1.249,27 euroko kreditu saldoa duena. 8.200,00 €-ko kreditu gehigarria beharko litzateke.

1.92001-1300202 – Administrari laguntzailearen posturako osagarriak, 170,02 euroko kreditu saldoa duena. 2.400,00 €-ko kreditu gehigarria beharko litzateke.

1.92001-1210302 – Idazkaritzako gradu-osagarria, 3.235,12 euroko kreditu saldoa duena. 2.900,00 euroko kreditu gehigarria beharko litzateke.

Administrari laguntzailearen kontratazioari dagokionez, dagoen desfase horren arrazoia da Batzarre Nagusiak onartutako lanaldiaren luzapena; gradu-osagarriari dagokionez, berriz, kontuan hartu ez izana ekitaldi honetan eman den gradu aldaketa.

Gaur egun nahikoa saldo dago lotura-poltsan, baina urte amaierarako aurreikuspena doitu dago, eta, beraz, kreditu gehigarri bat behar da ekitaldiaren amaieran poltsa ez gainditzeko.

Azaldutakoagatik, adierazitako zenbatekoen kreditu gehigarri bat zuzkitzeko eskaera aurkeztu zaio Osoko Bilkurari. Aurrekontuak gauzatzeari buruzko 10.2 oinarrian aurreikusitakoaren arabera, aurreikusitako kreditua nahikoa ez bada eta handitu ezin bada, kreditu gehigarriaren espedientea hasiko da. Gehigarriak honako baliabide hauetako batekin edo batzuekin finantzatzeko dira: a) Diruzaintzako gerakin likidoa

Osoko bilkurak onartutako aldaketak honela izapidetuko dira: kreditu horiek emateko Osoko Bilkurak hartutako hasierako erabakia jendaurrean jarriko da Udalbatzaren iragarki-taulan hamabost egun naturaleko epean, herritarrek edo interesdunek egoki irizitako erreklamazioak edo alegazioak aurkez ditzaten. Epe hori igarotakoan, erreklamaziorik edo alegaziorik aurkeztu ez bada, hasierako onespenerako erabakia behin betiko onetsitatzeko da, eta jendaurrean jartzeko epea igarotakoan sartuko da indarrean. Erreklamazioak edo alegazioak aurkeztuz gero, Osoko Bilkurak esanbidezko erabakia hartu beharko du erreklamazioen ebazpenari buruz eta proposatutako aldaketaren behin betiko onarpenari buruz. Aldaketa indarrean sartuko da, behin betiko testua toki-erakundearen iragarki-taulan argitaratu ondoren.

Osoko Bilkurak, espedientea eta aurrekontuaren gauzatze egoera aztertu ondoren, aldatzea erabaki du, eta 13.500,00 €-ko kreditu gehigarriaz zuzkituko da, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren kontura finantzatzeko dena. Kopuru hori 341.730,77 €-koa zen, 2023ko kontuak itxi zirenean. Espedientea jendaurrean jarriko da, 2024rako aurrekontua gauzatzeko 9.4 oinarrian aurreikusitakoaren arabera.

BOSGARRENA.- LANKIDETZA HITZARMENA, ORREAGA TURISMO ELKATEAREKIN

Irati Orreaga Landa Turismoko Elkarteak aurkeztutako proposamena da. Elkarteak Artzibar, Erroibar, Aezkoa eta Luzaide, Auritz eta Oroz-Betelu herrietako enpresa eta pertsona autonomoak biltzen ditu. Bere helburuen artean, Administrazio Publikoen eta ekimen pribatuaren arteko ahaleginak eta lankidetzak bateratzea dago, Ibarreko turismoa sustatzeko eta merkaturatzeko ekintzak egin ahal izateko, bai eta bazkideen eta erakunde publiko eta pribatuaren artean elkarrekiko interesa duten gaiak bideratzea ere.

Elkarteak Aezkoako Batzarre Nagusiarekin hitzarmena sinatzeko eskatu du, Irati Orreaga Landa Turismoko Elkartearekin mota guztietako harremanak bultzatzeko eta Artzibar, Erroibar, Aezkoa eta Luzaide, Auritz eta Oroz-Betelu herrietako enpresa eta autonomoen intereseko gaiak hobetzeko.

Proposamena aspaldi aztertu zen bailarako udalekin, izan ere, Elkarteak Aezkoan Hitzarmen bakarra sinatzea eskatu du, Batzarre Nagusiak hain zuzen ere. Ondorioz, Batzarre Nagusiak biztanle bakoitzeko hiru euroko ekarpena egingen luke eta udalek Batzarre Nagusiari kuota horren % 50 ordainduko liokete.

Osoko Bilkurak, hitzarmen proposamena ikusita, lankidetzak onartzea eta lehendakariari hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea erabaki du, honako eduki honekin:

1.- Hitzarmenaren xedea da Aezkoako Batzarre Nagusiaren eta Irati Orreaga Landa Turismoko Elkartearen arteko lankidetzak arautzea, turismo-estrategien diseinuan, turismo, ostalaritza, merkataritza eta tokiko produktuen arloko aholkularitza eta jarduerak horri lotutako turismo produktuen eta jardueren sustapenean lankidetzak aritzeko.

2.- Aezkoako Batzarre Nagusiak ibarrean erroldako biztanle bakoitzeko 3 euroko dirulaguntza emanen dio Irati Orreaga Landa-turismoko elkarteari 2024rako, zehaztu beharreko partidaren kargura, eta urtero berriro ahal izanen da, bi aldeak ados jarrita.

3.- Emandako ekarpena jasotzeko, Elkarteak ekitaldian egindako jardueraren balantzea, aurrekontua, abenduaren 31ko bazkide-kopurua eta ekitaldi horri dagozkion kobratutako kuotak aurkeztuko ditu.

4.- Batzarre Nagusiak orokorrak batzarrekide bat izendatuko du, elkartearen harremanetan jarri ahal izateko. Hitzarmen honen xede diren ekintzak planifikatu eta gauzatzeko. Erabaki da Batzarreburua eginkizun horretarako izendatzea.

5.- Batzarre Nagusiak solaskide pribilegiatutzat hartuko du Elkartearen, eta turismoari, jatetxei, tokiko produktuari eta abarri buruzko gaietan eragina duten eztabaida taldeetan parte hartuko du, turismoarekin eta garatu nahi diren proiektu eta espazioak abiaraztearekin eta ekimenekin zerikusia duen guztian. Baita erakundeak bere jarduerak instituzionalaren barruan egokitzea jotzen dituen esparru estrategikoetan ere.

6.- Irati Orreaga Landa Turismoko Elkarteak bazkide gisa hartzen ditu Aezkoako Batzarre Nagusiak zehaztutako dituen titulartasun publikoko establezimenduak, eta Elkartearen webgunean eta sare sozialetan ikusaraziko ditu. Establezimendu horiek aktibo egonen dira erakundeak hala komerziatu duenean, eta Elkartearen erantzukizuna da sareetan integratzeko eta zabaltzeko lana egitea. Entitateek erabakiko dute nortzuk izanen diren batzarre-erakundearen establezimenduen ordezkariak. Ordezkaritza hori aholkua izanen da, hots, hitzarekin, baina botorik gabea izanen da.

7. – Irati Orreaga Landa Turismoko Elkarteak konpromisoa hartzen du ekonomia zirkularra eta tokiko produktuari balioa ematea sustatzen duten

jarduerak egiteko bailara eta herri inplikatuetan. Jardueren karteletan eta zabalkundearen erakundearen bereizgarria sartuko da.

8.- Irati Orreaga Landa Turismoko Elkarteak publiko guztiei irekitako jarduerak antolatzeko konpromisoa hartu du. Prestakuntza edo kualifikazio-programak ere irekiak izanen dira elkartekoak ez diren pertsonentzat. Horietako bakoitzaren kostua zehaztuta.

9.- Erakunde onuradunak beteko ditu Ibarreko Batzarre Nagusiak ezarritako betebeharrak guztiak, bai eta, dirulaguntza honen onuradun gisa, indarreko legerian xedatutakoaren arabera eska dakizkion bestelakoak ere:

- a) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan (martxoaren 30eko 3/2015 Lege Organikoak emandako idazketan) onuradun izateko ezarritako debekuetako baten eraginpean ez egotea. Era berean, elkarteak egunean izan behar ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzatik eratorritakoak. Atal horietako edozein betetzen ez bada, erakunde publikoak hitzarmena deuseztatuko du.
- b) Dirulaguntzaren xede den lehenengo klausulan adierazitako helburuak betetzea, eta justifikazio-kontuaren bidez egiaztatzea, jarraian adieraziko den moduan.
- c) Batzarre Nagusiari hilabeteko epean jakinaraztea, Elkartearen barruan batzarren aldaketak, ordezkariak edo presidenteara gertatutako gero.
- d) Batzarre Nagusiaren zerbitzuek jarduera egiaztatzeke eta haren jarraipena egiteke eta finantza-kontrola egiteke egin ditzaketen jarduerari men egitea.

10.- Idazkaritza/Kontuhartzailatza Zerbitzua da dirulaguntza hau kudeatzen duen organoa. Beraz, ematen den dirulaguntzarekin zerikusia duen edozein izapide, jarraipena, justifikazioa eta egiaztapena haren bidez egin behar dira.

11.- Hitzarmen honetan aurreikusi ez den guztirako, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (DLO), Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua (DLO) eta dirulaguntza publikoak eta administrazio-prozedura arautzen dituzten toki-araubidearen gainerako legeak aplikatuko dira.

SEIGARRENA.- 2023ko EKITALDIKO KONTUAK.

2023ko ekitaldiko kontuen behin betiko espedientea berrikusi da, eta urteko partidak eta emaitzak azaldu dira. Batzarre Nagusiak urtarrilaren 12an egindako batzarrean aurkeztu zuen behin-behineko likidazioa, 2024rako aurrekontua aurkeztu zelako.

Kontuen itxiera berrikusita, Batzarre Nagusiko Osoko Bilkurak onetsi egin du, eta, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 305. artikuluan xedatutakoa betez, jendaurrean jarri da erakunde horren iragarki taulan eta web-orri instituzionalean, hamabost eguneko epean, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, interesdun guztiek azter ditzaten eta erreklamazio-kontuak aurkez ditzaten.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, kontuak behin betiko onartutzat joko dira.

Honako hau da kontuen laburpena:

Kap	Izena	Behin betiko aurrikus	Aitortutako betebeharrak	%
1	Langile gastuak	342.848,00	258.879,18	77,84
2	Ondasun arruntak eta zerbitzuak	213.048,50	173.510,29	64,66
3	Finantza gastuak	0,00	0,00	0
4	Transferentzia arruntak	52.030,00	42.626,76	84,04
6	Inbertsio errealak	400.800,00	279.100,02	87,62
7	Kapital transferentziak	0,00	0,00	0,00
8	Finantza aktiboak	0,00	0,00	0,00
9	Finantza pasiboak	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA		1.008.726,50	754.115,25	80,33

Diru-sarrerren kapitulua

Kap	Izena	Behin betiko aurrikus	Aitortutako eskubideak	%
1	Zerga zuzenak	0,00	0,00	0,00
2	Zeharkako zergak	0,00	0,00	0,00
3	Tasak, precio publikoak eta veste diru sarrera batzuk	171.000,00	107.257,79	
4	Transferentzia arruntak	141.126,50	141.100,78	
5	Ondareagatiko sarrerak / komunalaren aprobeitxamendua	419.100,00	699.431,99	
6	Inbertsio errealen salmenta	0,00	0,00	
7	Transferentziak/beste kapital sarrera batzuk	277.500,00	125.242,99	
8	Finantza aktiboak	0,00	0,00	
9	Finantza pasiboak	0,00	0,00	
TOTAL		1.008.726,50	1.073.033,55	

Diruzaintzako laburpena:

Kobratutakoak		Ordaindutakoak	
Aurrekontu arrunta	835.438,58	Aurrekontu arrunta	1.059.706,76
Itxitako aurrekontuak	395.966,96	Itxitako aurrekontuak	16.807,90
Aurrekontu kanpoko sarrerak	105.091,09	Aurrekontu kanpoko sarrerak	225.308,53
Barne mugimenduak	175.878,00	Barne mugimenduak	175.878,00
KOB RATUTAKOAK, GUZTIRA	1.512.374,63	ORDAINDUTAKOAK, GUZTIRA	1.477.701,19
Hasierako izakinak	230.541,79	Bukaerako izakinak	265.215,23

Datu gisa, gogorarazi behar da Batzarre Nagusi honek aurrerakin gisa (aurrekontuz kanpoko gastua) aurreratu zituela uholdeek eragindako kalteak

konpontzeko obrei zegozkien zenbatekoak. Orbaizetako Udalak espediente hori esleitu eta ordaindu zuen, eta ekitaldi honetan oraindik likidatzeke dago.

2023ko ekitaldiko aurrekontu-emaitza doituia -173.423,85 €-koa da, gastuak sarrerek baino gehiago egin baitira (gogoan izan 2023an ez zela baso-enkanterik egin, aprobetxamenduak saltzeagatiko diru-sarrerek 2022an kobratzeke zeudenei dagozkiela); informazio gisa, aurreko ekitaldiko emaitza (2022an) 298.240,14 € izan zen.

Diruzaintzako gerakinaren egoera honako hau da:

- Atxikitako finantzazioa duten gastuengatiko diruzaintzako gerakina: 0,00 €
- Diruzaintzako gerakina, atxikitako baliabideengatik: 43.229,63 €
- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina: 341.730,77 €

Ekitaldiko emaitza ekonomikoa 10.126,90 €koa da.

ZAZPIGARRENA.- IRATIN TURISMOA ERREGULATZEKO AZTERKETAREN HASIERA

Jakinarazi da Arrazolatik etengabe egiten ari direla turismoaren erregulazioa ulertzeko moduari buruzko kontsultak. Kasu askotan, praktikatzat hartu da nahikoa euskarri juridikorik ez duen seinalez tapena egitea, ibarreko batzarraren pisten erabilera arautzen duen ordenantzak ezarritakoa alde batera utzita, eta horrek, kasu batzuetan, informazio zerbitzuetako langileentzako gatazka eragin dezake. Era berean, erregulazio oso bati ekiteko beharra ikusten da, are gehiago Irati Biosfera Erreserba izendatu ondoren gehitu daitekeen erakargarritasuna kontuan hartuta. Zehazki, erregulazioaz gain, Arrazolatik karteldegi oso bat eskatzen ari dira erabilera arauekin; beraz, lehenik eta behin arauak ezarri behar dira eta, ondoren, informazio paneletara eraman.

Ordenantza batean, gutxienez, puntu hauek jaso beharko liriateke:

- Kanpatzea debekatuta (uztailaren 19ko 226/1993 Foru Dekretuan zehaztutakoari eutsita): "Dagokion toki erakundeak aldeztu aurretik baimendu beharko du kanpaldi librearen egitea".

- Debekatuta dago Iratin gaua ibilgailuan igarotzea

- Dutzetara sartzeko eskubidea zehaztea (pertsonek ez dute mantentze-tasa ordaintzen eta dutzetara sartzeko giltza eskatzen dute).

- Debekatuta txakurrak lotu gabe eramatea (lekuak zehaztea) edo Ehizari buruzko Legean eta Erregelamenduan – estatuko araudian-araututakoari erreferentzia egitea.

- Debekatuta dago Arrazolatik autokarabanekin sartzea.

- Debekatuta dago sua egitea, horretarako egokitutako lekuetan izan ezik, eta, nolana ere, Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuak edo eskumenaren arabera dagokion Departamentuak zehaztutako arauen arabera.

- Hildakoen errautsak gorde edo isurtzea – errautsak bakarrik bota ahal izanen dira, errautsak dituen hautestontzirik gabe. Erabat debekatuta dago plakak, panelak edo ageriko edozein origarri jartzea. Loreak utziz gero, ez dute plastikozko, paperezko... apaingarririk edo bilgarririk izanen, ez eta biodegradagarria ez den bestelako materialik ere.

- Errautsak utzi dituzten pertsonak ezin izanen dute aparteko baimenik lortu errautsak dauden lekura iristeko; beraz, hori kontuan hartu beharko da kokapena aukeratzekoan.

- Itxita dauden pasabide guztiak itxita egon beharko dira. Erabiltzaileen erantzukizuna da azientzarentzako itxituren erregulazioa ez oztapatzea.

ZORTZIGARRENA.- EGONKORTZE PROZESUA. ONARTUTAKOEN ZERREDA, EPAIMAHAIAREN IZENDAPENA ETA PROBEN DATA.

2022ko azaroaren 4an, Batzarre Nagusiak egonkortze prozesuari lotutako lanpostuak lehiaketa oposizio bidez eta merezimendu lehiaketa bidez betetzeko deialdiak onartu zituen.

Deialdiak 2022ko abenduaren 12ko 247. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, eta eskaerak aurkezteko epea ireki zen. Epea amaituta, deialdietan onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartu da, epaimahaiak izendatu dira eta abuztuaren 12ko 1/24 Ebazpenaren bidez egindako oposizio lehiaketaren deialdiari dagokion proba noiz egingen den adierazi da:

1- Iratiko Zaintza-Informazioko hiru lanpostu betetzeko oposizio lehiaketa

Erabaki da:

Iratiko zaindari-informatzaile lanpostuko hiru lanpostu oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdian onartutako eta baztertutako izangaien zerrenda onartzea:

Onartutako pertsonak: Ancho Adot, Joseba - Argote González, Naiara - Agorreta Bernal, Iñigo - Ilintxeta Navarro, Eduardo – Loperena Larrañeta, Amaia – Ubau Galarza, Nere.

Baztertutako pertsonak: bat ere ez.

Deialdiaren 6. oinarrian aurreikusitakoaren arabera, bazterturik ez dagoenez, zuzenean onartzen da onartutakoen behin betiko zerrenda.

2- Irati Haurtzaindegi-Informazioko bi plaza betetzeko merezimendu-lehiaketa.

Erabaki da:

Iratiko zaindari-informatzaile lanposturako bi plaza merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko deialdian onartutako eta baztertutako izangaien zerrenda onartzea:

Onartutako pertsonak: Barriola Ezkurra, Jon, Garaialde Etxeberz, Elena, Loperena Larrañeta, Amaia, Ubau Galarza, Imanol. Ubau Galarza, Nere.

Baztertutako pertsonak: bat ere ez.

2.- Iratiko Zaintza eta Informazioko lanpostuetarako Epaimahai Kalifikatzailea honako pertsona hauek osatzen dute:

Presidente: Carlos Bueno Reca Aezkoako Batzarre Nagusiko buruak; ordezkoa: izendatu beharreko Batzarre Nagusiko kidea.

1. mahaikidea: Edurne Miguel Zufiaurrek; ordezkoa: Cederna-Garalur-eko teknikaria.

2. mahaikidea: Nieva Uriz Domezainek; ordezkoa: Turismoaren Lurralde Garapen Iraunkorreko Zerbitzuko teknikaria;

3. mahaikide: Zuberua Garcia Rodriguezek, Gu Pirinioko teknikaria.

Mahaikide-idazkaria: Aezkoako Batzarre Nagusiko idazkariak. Ordezkoa: Aezkoa ibarreko udal bateko idazkaria.

3.- Irailaren 6an, 9: 30ean, oposizio-faseari, lehenik eta behin egingen dena, dagokion proba egingen da. Proba Aezkoako Etxeko Bilkura Aretoan egingen da, deialdi bakarra eginda, eta test motako proba bakarra egingen da deialdiko gai-zerrendari buruz. Fase hau baztertzailerak izanen da, ta

gainditzeko gutxienez 30 puntu lortu beharko dira, fase honi dagozkion 60 puntuetatik.

4.- Ebazpen hau epaimahaiko kideei helaraztea eta deialdiaren web-fitxan argitaratzeko agintzea, dagozkion ondorioetarako.

3- Euskara teknikari lanpostu bat betetzeko merezimendu-lehiaketa.

Erabaki da:

Euskara teknikariaren lanpostu bat merezimendu lehiaketa bidez betetzeko deialdian onartutako eta baztertutako izangaien zerrenda onartzea:

Onartuak: Zabaltza Garate, Idoia – Zubialde Iribarren, Javier.

Baztertutako pertsonak: bat ere ez.

4- Lanaldi partzialeko garbitzaile plaza bat betetzeko merezimendu-lehiaketa.

Erabaki da:

Garbitzaile lanpostuan lanaldi partzialeko lanpostu bat merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko deialdian onartutako eta baztertutako izangaien zerrenda onartzea:

Onartutako pertsonak: Loperena Larrañeta, Amaia.

Baztertutako pertsonak: bat ere ez.

2.- Euskara teknikari eta garbitzaile lanpostuetarako Epaimahai Kalifikatzailea honako pertsona hauek osatzen dute:

Presidente: Carlos Bueno Reca, Aezkoako Batzarre Nagusiburua; ordezkoa: izendatu beharreko Batzarre Nagusiko kidea.

1. mahaikidea: Edurne Miguel Zufiaurre; ordezkoa: Cederna-Garalur-eko teknikaria.

Mahaikide-idazkaria: Aezkoako Batzarre Nagusiko idazkaria. Ordezkoa: Aezkoa ibarreko udal bateko idazkaria.

3.- Ebazpen hau epaimahaiko kideei helaraztea eta deialdiaren web-fitxan argitaratzeko agintzea, dagozkion ondorioetarako.

Onartutakoen zerrendan agertzeak ez du esan nahi zerrendan agertzen direnei deialdiaren xede den prozeduran eskatutako baldintzak betetzen dituztela aitortzen zaienik.

BEDERATZIGARRENA.- BESTE BATZUK

- Biosferaren Erreserba

Irati Biosfera Erreserbaren izendapenari dagokionez, Parke Nazionalak Erakundeak mezu elektronikoko bat bidali du, Natura Ondareari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 50. artikulua 2. puntuan ezarritakoarekin bat etorriz, OE hori jendaurrean jartzeko prozeduraren emaitzaren berri emateko eskatzeko, Estatuko Aldizkari Ofizialean Iratiko O Eren onarpena argitaratu ahal izateko, oinarriko informazioarekin eta hark hartzen duen perimetroaren planoarekin batera.

Mezu hori jaso ondoren, kontsulta bat egin da, artikulua idazketak berak jendaurreko informazioaren izapide berri bat ote den jakiteko, "adierazpena edo inklusioa" aipatzen baitu, eta orain arte adierazpen hori baino ez zegoen eskatuta.

Kontsultatik ondorioztatzen denarekin, beharrezkoa bada, jendaurreko informazio prozesu berri bat irekiko da edo egindakoa ziurtatuko da. Batzarre Nagusia jakinaren gainean dago.

- Langilearen eszedentziaren amaiera

Jakinarazi da I. Ubau langileak Iratiko zain-informatzailearen lanpostura itzultzeko eskatu duela, Batzarre Nagusi honi eskatutako borondatezko eszedentzia hasi zenetik urtebete igaro denean. Batzarre Nagusi hau atxikita dagoen Foru Komunitateko Administrazioak sinatutako lan kontratuko langileen Hitzarmen Kolektiboan aurreikusten den bezala, lanera itzultzea onartu da, eta ekitaldi honetako irailaren 19tik aurrera egin beharko du.

-Karekin Kultura -Iratira bidaiak, emakumeen lorratzak- proiektua.

Jakinarazi da Karekin Kultura egindako proiektuari dagozkion gastuen eta diru-sarreraren justifikazioa aurkeztu dela. Proiektu hori liburu bat argitaratzean gauzatu zen, eta Batzarre Nagusiak lan egin den eskualdeko gainerako udalekin batera, bederatzehun eta berrogeita hamar euroko ekarpena egiteko konpromisoa hartu zuen. Proiektu honek Innova Cultural programaren finantzaketa ere izan du.

Osoko Bilkurak zehaztutako dirulaguntza ordaintzea onartu du.

- Los Mozolos ehiztarien elkartearen kontuak.

Jakinarazi da Ehiztarien Tokiko Elkarteak 2023-2024 denboraldiko kontuak aurkeztu dituela.

- Tokiko ibilbideak

Ibilbide batzuen mantentze egoerari buruz hitz egin da, batez ere bailarako herrietan markatu zirenei buruz, horiekin lotuta zenbait kexa jaso baita. Oraindik ere argitalpen askotan eta Batzarre Nagusiaren webgunean agertzen dira ibilbide horiek, baina ez dakigu udalerriek horiek mantentzeko lanak egiten dituzten ala ez.

Kexaren bat egon da horietako batzuk mantentzearekin lotuta eta beste batzuk erabat utzita izatearekin.

Erabaki da gai hori ibarreko udalekin aztertzea.

- Yala Nafarroaren mozioa, Palestinari atxikimendua adierazteko eta Gazako genozidioa gaitzesteko.

Yala Nafarroa mozioa aurkeztu da, Palestinari atxikimendua adierazteko eta Gazako genozidioa gaitzesteko. Honakoa dio:

76 urteko okupazioa, palestinarren lurren eta baliabideen lapurreta, eta hamarkadak dira Israelek apartheid sistema ezarri zuela; etengabeko genozidioa prozesu historiko batean txertatzen da, Palestinaren legez kanpoko okupazioa eta bere lurraldearen murrizketa gero eta handiagoa oinarri hartuta. Horri esker, politika edo continuum batzuk garatu ahal izan dira apartheid, segregazio, bantustanizazio estrategia beraren barruan, zigor kolektiboak etengabe ezartzeko eta herri, etnizidio eta genozidio baten deuseztatpena gauzatzeko, oraingoan mundu guztiaren bistan, Israeli bere planarekin jarraitzea eragotzi gabe; Israelek ez ditu aintzat hartzen eta ez ditu betetzen sistematikoki Nazio Batuen Ebazpenak, bai eta Nazioarteko Justizia Gorteak 2024ko maiatzaren 24an emandako agindua ere, zeinaren arabera «Israeli agintzen baitio Gazako eraso berehala gelditzeko eta Gazako sarrera guztiak irekita edukitzeko eta ikerketa-batzorde bati sartzen uzteko».

Kontuan hartuta Nazioarteko Justizia Gortearen neurri hauek betetzen direla ziurtatzeko estatu sinatzaile guztien betebeharra, Batzazre Nagusi honek erabaki du:

-Herri palestinarrari elkartasuna adierazten dio eta bere eskubideen aitortza babesten du.

-Espainiako Gobernuari eskatzen dio:

1. Gazako zerrendan berehalako su-eten iraunkorra eska dezala nazioarteko instantzia diplomatiko guztietan.

2. NBEk korridore humanitarioak irekitzea bultzatzea, elikagaiak, sendagaiak eta bizitza duina izateko behar den guztia Gazan sar dadin. Israelek sarrera legez kanpo blokeatzen jarraitzen du gaur egun nazioarteko legezkotasuna argi eta garbi urratuta.

3. Israeli armak eta petrolioak berehala enbargatzea, Gazako populazio zibilaren aurka erabiltzea saihesteko, NBEren Lurralde Palestinar Okupatuaren Errelatore Bereziak EBri eskatutakoarekin bat etorritik. [02] Israeli armak erostea eta saltzea eten dezala, genozidioak, okupazioak eta apartheidak irauten duten bitartean, herrialde honek palestinarren aurka egindako ankerkeriak ikusita eta Europar Batasunari eska diezaiola Israeli armen eta teknologia militarren salerosketa eteteko.

4. Israeli, potentzia okupatzaileari, eska diezaiola suntsitutako palestinarren etxebizitza eta azpiegitura zibil guztiak berreraikitzeke, bai eta milaka zibil palestinari eragindako hilketak, zauri eta traumen osasun- gastuak eta kalte-ordainak ordaintzeko ere.

5. Nazioarteko Zigor Auzitegiko fiskalak adierazi duenez, «Israelek nahita eta sistematikoki kendu dizkie Gazako biztanleria zibilari gizakien biziraupenerako ezinbestekoak diren objektuak». Beraz, Nazioarteko Zigor Auzitegiari eta Nazioarteko Justizia Gorteari laguntza handiagoa ematea eskatzen dugu, Israelgo Gobernuak eta Gazan 40.000 pertsona baino gehiago hil eta desagertu izanaren arduradun nagusiak auzipetzeko. Horietako gehienak emakumeak eta haurrak dira, Zisjordanian eta Jerusalem ekialdean ugaritu den indarkeria eta lurren eta etxebizitzaren lapurreta ahaztu gabe. Nazioarteko Zigor Auzitegiak adierazi duenez, «Israelek nahita eta sistematikoki kendu dizkie Gazako biztanleria zibilari gizakien biziraupenerako ezinbestekoak diren objektuak». Ildo horretan, Espainiako estatuak Hegoafrikak eta Israelen aurkako kereila babesten duten beste estatu batzuek Nazioarteko Justizia Gortean egindako demandarekin bat egin izana ospatzen dugu, eta urrats horrekin batera genozidioa, okupazioa edo apartheid-a eragozteko eta inola ere ez laguntzeko politika aktiboak ere eskatzen ditugu.

6. 1967ko gerraren aurreko mugak dituen estatu palestinarra onartzeaz gain, herri palestinarraren autodeterminazio-eskubidea onartzea, palestinarrak beren mugak eta etorkizuneko antolaketa zehaztu ahal izan ditzaten NBEk babestutako bidezko negoziazio batean, eta errefuxiatutako biztanle palestinarrari itzultzeko eskubidea aitortzea, Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 194., 242. eta 3236. ebazpenek zehazten duten bezala.

7. Espainiako enpresei eska diezaiela Palestinako lurralde okupatuetatik datozen salgaien jatorria nahitaez adierazteari buruzko legeria betetzeko.

8. Europar Batasunaren eta Israelen arteko Elkartze Akordioaren aurka egin dezala, lehentasunezko hitzarmen hori nabarmen ez betetzeagatik, Israelek ez baitu betetzen giza eskubideak eta printzipio demokratikoak errespetatzeko konpromisoa. Nazioarteko Justizia Gorteak eskatzen duen bezala eta Irlandaren eta Espainiaren kontsultaren ondoren Europar

Batasunak informatu gabe jarraitzen duen bitartean, kautelazko neurriak edo preautelarrak atzerapenik gabe hartzea.

9. Israelekin harremanak haustea, nazioarteko legedia eta giza eskubideak sistematikoki urratzen dituelako. Israelek Giza Eskubideen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren arloko nazioarteko legeak urratzen jarraitzen duen bitartean eta genozidio, apartheid eta okupazio ekintzei eusten dien bitartean mantendu beharko da harremanen haustura hori.

— Giza Eskubideen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren arloko nazioarteko legeriarekin konprometitzen da. Hori dela eta, aplikatzekoa den araudiak ahalbidetzen duen neurrian, ez du laguntza ekonomikorik emango, lokalen lagapenik, aitopenenik edo harrera publikorik egingo Israel eta sionismoa ordezkatzeko duten pertsonak, elkarrekin edo enpresek egindako edozein jarduera ekonomiko, kultural, kirol edo ludikori, jarduera horiek Palestinaren aurkako apartheid, okupazio eta genozidioa gaitzesten badute edo jendaurrean adierazten ez badute.

— Araudi aplikagarriak ahalbidetzen duen neurrian, bere eskumeneko kontratazio publikoko prozesuetan okupazioaren negozioarekin harreman ekonomikoak, babesletzak edo estrategikoak dituzten pertsonekin kontraturik ez egiteko konpromisoa hartzen du.

— Nafarroako Gobernuari eta Nafarroako Parlamentuko talde parlamentarioei eskatzen die azter ditzatela kontratazio publikoaren araudian aldaketak, Giza Eskubideen arloan nazioarteko legezkotasuna babesteko klausula eraginkorragoak sartzeko, Giza Eskubideen urraketa larrietan inplikaturik dauden enprekin kontratuak egitea debekatzeko.

— Ahal den neurrian, laguntza emango die UNRWARI eta Palestinako herriaren alde lan egiten duten giza eskubideen eta gizarte zibilaren beste erakunde batzuei, eta lekua emango die, ahal denean, giza eskubideen defendatzaileei eta genozidioaren, apartheid-aren eta palestinar herriaren okupazioaren lekuko zuzenei.

- Udalbiltza Partzuergoan sartzeko proposamena.

Udalbiltza Partzuergoa borondatezko elkarte da, erakunde publikoa, nortasun juridiko propioa eta bere helburuak betetzeko gaitasun osoa dituen. Toki-araubideari buruzko Espainiako legerian eta, bereziki, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 87. artikuluan eta Toki Araubidearen Legearen testu bateginaren 110. artikuluan xedatutakoaren arabera arautzen da.

Partzuergoak, mugaz gaindikoa izan nahi du. Asmo horren oinarrian daude nazioarteko itunak eta Europako legeria, batez ere 1995eko martxoaren 10eko Baionako Itunean, zeinaren arabera Frantziako Errepublikako udalak partzuergo horretara atxiki daitezkeen.

Mugaz gaindikoa lankidetzaren lurralde-eremua Nafarroako Foru Komunitateak, Euskal Autonomia Erkidegoak eta Iparraldeko eremuko Erkidegoak osatzen dute, eta, bereziki, eremu horretako udalek.

Partzuergoaren helburuak dira elkartutako erakundearen garapen integrala eta haien arteko lankidetzaren instituzionala bultzatzea, elkarrekin lan eginez beren lurralde-eremuko lurralde-, gizarte- eta kultura-antolamendua lortzeko. Garapen-estrategiak egin eta erabiliko ditu, helburu hori lortzeko egokitzat jotzen dituen tresnen bidez.

Batzarre Nagusiak baditu Partzuergoaren estatutuak, helburu horiek jasotzen dituztenak.

Batzarre Nagusiaren Osoko Bilkurari atxikitzeko proposamen bat aurkeztu da, eta, berrikusi ondoren, honako hau erabaki du:

1.- Aezkoako Batzarre nagusiak "Udalbiltza Partzuergoarekin" eta bere estatutuekin ados dagoela adierazi du, eta Partzuergo horren Kontseilu Nagusian sartzeko eskatu du.

2.- 1.500 euroko ekarpena egitea onartu da, Partzuergoa eratzekeo gastuak eta hartutako konpromisoak barne.

3.- Urtero dagokion kuota ordaintzea erabaki da.

HAMARGARRENA.- GALDE-ESKEAK.

Ez da galde-eskerik egin.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, bilkura bukatutzat eman da goian adierazitako eguneko arratsaldeko hirurak zirela. Errandakoa jasotzeko akta hau luzatu da, eta nik, idazkariak, ziurtatu egiten dut.



**JUNTA DEL VALLE DE AEZKOA
AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIA**

31671 ARIBE (Navarra) · CIF: P3175000C
Tel: 948 76 43 75
junta@aezkoa.net
valledeaezkoa@gmail.com
www.aezkoa.org

Ariben, 2024ko urriaren 21ean, eguerdiko hamabi eta erdietan, Aezkoako Batzarre Nagusiak bilkura berezia egin du, lehenengo deialdian, legez deituta, haren presidente titularrak zuzenduta eta jarraian adierazten diren kideak bertan zirela, eguneko honako gai hauek aztertzeko:

BILDUTAKOAK

Batzarreburu jauna: Karlos Bueno Reka

Batzarrekide jaun/anderak: Anchorena Laurenz, Francisco Javier - Galarza Larrayoz, Maria Carmen – Merino Iriarte, Juan Esteban – Zabalza Barberena, Izaskun.

BAKARRA.- AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIKO KIDEAK HAUTATZEKO HAUTESKUNDEETARAKO DEIALDIA.

Batzarre Nagusiaren Ordenantza Orokorren 13. artikuluan ezartzen den (onartutako azken aldaketaren ondoren) bezala, hauteskundeak eginen dira laurogeita hamar eguneko epean, aurrekoak egin zirenetik (2020ko irailaren 27an egin ziren) 4 urte bete eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Epe hori eta hauteskundeak igandean egin behar direla kontuan hartuta, 2024ko abenduaren 22a izanen litzateke gehienezko data.

Egungo araudi hori kontuan hartuta, Osoko Bilkurak erabaki du Ibarreko Batzarre Nagusiko kideak hautatzeko hauteskundeetarako deia egitea. Hauteskundeak 2024ko abenduaren 22an, igandean, izanen dira. Deialdi-dekretuan prozesu osoaren erregulazioa zehaztuko da, baita dagozkion epeak ere. Epe horiek bilkura honetan berrikusi eta onartuko dira, eta honako egutegian jasotakoak dira:

1.- Hautagai zerrendak aurkeztea:

Hautagai zerrendak aurkezteko epea 2024ko azaroaren 6tik 20ra arte, biak barne, egonen da zabalik. Aurkeztu nahi dutenek Batzarre Nagusiko Idazkaritzan edo Ibarreko edozein udaletxetan jaso ahal izanen dituzte inprimakiak.

Hautagai zerrendak Batzarre Nagusiko Idazkaritzan aurkeztuko dira, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 13:00etara, hautagai zerrenda osatzen duten hautagaien errolda ziurtagiriarekin batera.

2.- Alegazioak aurkezteko epea

Azaroaren 22an, udal bakoitzeko eta Batzarre Nagusiko iragarki oholetan jarriko dira aurkeztutako hautagaien zerrendak, eta zerrenda horien aurka egiteko epea irekiko da abenduaren 2ra arte, egun hori barne. Erreklamaziorik egonez gero, Batzarre Nagusiak ebatziko ditu bilkura berezian, eta, ondoren, hautagaiak aldarrikatuko dira, behin betiko zerrendak argitaratuta.

3.- Hauteskunde kanpaina

Hautagaien behin betiko zerrendak argitaratzen direnetik abenduaren 21era arte hauteskunde kanpaina egin ahal izanen da.

4.- Hauteskundeak egitea

Udal bakoitzak mahaiburu bat eta bi mahaikide izendatuko ditu, bai eta dagozkion ordezkioak ere, Hauteskunde Mahairako. Mahaia bozketak hasi baino ordu erdi lehenago eratuko da.

Goizeko 9etatik abenduaren 22ko igandeko 14ak arte, udal bakoitzak horretarako prestatutako aretoan eta dagozkion hauteskunde mahaiaren aurrean egingen dira bozketak.

5.- Alegazioak

Abenduaren 24an, asteartea, ibarreko udal guztietan eta Batzarre Nagusian jendaurrean jarriko dira hautagaien zerrendak eta lortutako emaitzak, eta horien aurka egin ahal izanen da 2025eko urtarrilaren 3ra arte, egun hori barne.

6.- Batzordea eratzea

Bokal hautetsiek osatutako Batzorde berria 2025eko urtarrilaren 18an, larunbatean, osatuko da, goizeko hamabietan.

Eta aztertzeko gai gehiagorik egon ez denez, bilkura bukatutzat eman da goan adierazitako eguneko 13:00ak zirela. Errandakoa jasotzeko akta hau luzatu da, eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.



**JUNTA DEL VALLE DE AEZKOA
AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIA**

31671 ARIBE (Navarra) · CIF: P3175000C

Tel: 948 76 43 75

junta@aezkoa.net

valledeaezkoa@gmail.com

www.aezkoa.org

Ariben, 2024ko azaroaren 29an, eguerdiko hamabi eta erdietan, Aezkoako Batzarre Nagusiak bilkura arrunta egin du, lehenengo deialdian, legez deituta, haren presidente titularrak zuzenduta eta jarraian adierazten diren kideak bertan zirela, eguneko honako gai hauek aztertzeko:

BILDUTAKOAK

Batzarreburu jauna: Karlos Bueno Reka

Batzarrekide jaun/anderak: Anchorena Laurenz, Francisco Javier - Galarza Larrayoz, Maria Carmen – Merino Iriarte, Juan Esteban.

LEHENENGOA.- AURREKO BILKURAREN AKTA ONESTEA.

2024ko abuztuaren 13ko eta urriaren 21eko aktak onetsi dira, eragozpenik agertu ez baita.

BIGARRENA.- IRAGAITZAKO IBILGAILUEK GAUA IGAROTZEKO EREMUAREN PROIEKTUA. DIRULAGUNTZAK.

Batzarreburuak gogorarazi du martxoaren 22an argitaratu zela Nafarroako Gobernuak onartutako araudi bat, autokarabanen eta iragaitzako ibilgailuen gauda igarotzeko eremuetarako eskatutako baldintzak aldatzen dituena; geroago, laguntza lerro bat argitaratu zuen, dauden eremuak araudi berri horretara egokitzeko. Laguntzen deialdi horretara Batzarre Nagusiak memoria bat aurkeztu zuen, ibilgailuek gauda igarotzeko gunean komunak jartzeko. Memoria hori martxoan bertan amaitu zen.

Ondoren, laguntza eskaera erretiratu egin zen, uste baitzen lehentasunezkoa zela Departamentuko teknikariek baloratzea, lekuan bertan, eremua egokitzeko dauden benetako aukerak, eraikita dauden bainuak proiektu berrian integratu zitezten eta espazio berean bi bainu/zerbitzu eremu desberdin izan ez zitezten. Gaia behin baino gehiagotan aztertu da teknikariek, eta horiek araudiari eusten diote; hemendik, baina, defendatzen da dena esparru bakartzat hartu beharko litzatekeela eta, komun berriak eraiki beharrean, egungoak zabaldu beharko liratekeela. Horrela gauda igarotzeko eremuarekin lotuta geldituko litzateke eta Arrazolara sartzen diren pertsona guztiei zerbitzua eman ahalko litzaike.

Laguntza deialdi horretarako eskabideak aurkezteko epea datorren urteko ekainean amaituko da. Hori dela eta, Batzarre Nagusi honek beharrezkotzat jotzen du Esnaola kontseilari anderearekin elkartzea, laguntza horietara zer eskaera eta obra mota aurkezten den erabaki aurretik gaiak hitz egiteko. Eremu osoa bakartzat hartzea lehenetsiko da.

HIRUGARRENA.- LARREAK ETA ZERBITZU ANITZAK KUDEATZEKO KONTRATUA LUZATZEARI BURUZKO ERABAKIA.

Laza SC enpresari 2023an esleitutako larreak eta zerbitzu anitzak kudeatzeko kontratua abenduaren 31n amaituko da. Baldintza agiriaren 5. klausulan ezarritakoaren arabera, kontratua urtebetez luzatu ahal izanen da, gehienez ere bost urtez, hasierakoa eta haren luzapen guztiak barne.

Laza enpresak kontratua luzatzeko eskaera aurkeztu du, eta Batzarre Nagusiaren erabakitzea falta da.

Batzarre nagusiaren Osoko Bilkurak erabaki du Larreak eta Zerbitzu Anitzak Kudeatzeko kontratuaren bigarren luzapena onartzea 2025eko urterako. Beraz, hasierako kontratuaren eta luzapenen guztizko denbora metatua 3 urtekoa da (2025ekoa barne), kontratazio-baldintzak arautzen dituen pleguan ezarritakoaren arabera. Erabakia Laza SC enpresari jakinaraziko zaio, eta bidezko baterako dokumentua sinatuko da.

Dagokion kreditua gaituko da datorren urteko aurrekontuetan, kontratu hau finantzatzeko.

Era berean, bilera bat egitea erabaki da, zerbitzuaren funtzionamenduari buruz hitz egiteko.

LAUGARRENA.- 2024-2025 BASO-LANEN PROIEKTUKO JARDUEREN LIZITAZIOA.

Irakurri dira proiektuko baso lanen separatei dagozkien memoriak eta balorazioak, Lur Geroak idatzitakoak. Era berean, kontratua kudeatzen duen unitatearen txostena irakurri da. Gastua 41213-6900001- 2025erako Baso Jarduketan Proiektua aurrekontu aplikazioari egotziko zaio Lizitazioaren barruan sartuko da, halaber, beste lote bat, Ekisola inguruan laborantza eta ereitea egiteko. Jarduketa horrek ez du 2024-2025 baso-lanetarako laguntzen deialdian Nafarroako Gobernuaren laguntzarik izan.

EFPLren 41. artikuluan ezarritakoaren arabera, loteak diseinatu dira, separaten bidez, horietako bakoitza osatzen duten prestazioak barne, eta banaka kontrata daitezke, zeregin mota bakoitzaren gauzatzea oztopatu gabe. Baso lanen proiektuan honako lote hauek sartu dira. ATF 2024-2025 proiektuko baso lanen separatei dagozkien memoriak eta balorazioak irakurri dira.

- 1. Lotea - Birlandaketa

Mozketa-epe erdiko espezieak landatzea 22.628,57 €

Lotea exekutatzeko luzapena dago, aurreko lizitaziotik datorrena – 2024an esleitu zen –. Aurreikusitako lan guztietatik landaketa gelditu zen egin gabe, eta aurten egin eta ordaindu beharko da. Beraz, lote hau ez da lizitazioaren barruan sartzen.

- 2. Lotea – Birlandaketen mantentzea: udako garbiketak

PEM- Birlandaketen mantentzea 10.947,34 €

Gastu orokorrak eta industria etekina: 1.751,57 €

Segurtasun eta osasun neurriak 218,95 €

KONTRATUA GAUZATZEKO AURREKONTUA: 12.917,86 €

BEZa (%10) 1.291,79 €

Lizitazioaren aurrekontua, guztira: 14.209,65 €

- 3. Lotea - Abeltzaintzako belar-sastraken garbitzea

PEM Abeltzaintzako belar-sastraken garbitzea 17.437,38 €

Gastu orokorrak eta industria etekina: 2.789,98 €

Segurtasun eta osasun neurriak 348,75 €

KONTRATUA GAUZATZEKO AURREKONTUA: 20.576,11 €

BEZa (%10) 2.057,61 €

Lizitazioaren aurrekontua, guztira: 22.633,72 €

- 4. Lotea 4 –Gibeleako pista	
Areka irekitzea	27.262,00 €
Kargategia egitea:	1.316,00 €
Hodia	<u>8.362,80 €</u>
Gauzatze materialaren aurrekontua:	36.940,80 €
Gastu orokorrak eta industria etekina:	5.910,53 €
Segurtasun eta osasun neurriak	738,82 €
KONTRATUA GAUZATZEKO AURREKONTUA:	43.590,15 €
BEZa (%21)	9.153,93 €
Lizitazioaren aurrekontua, guztira:	52.744,08 €

Aurreko loteez gain, lizitazioan sartuko da Ekisolan lurra lantzeari eta ereiteari dagokion lana ere. Lan hori memoria berezi batean agertzen da, eta 2025ean egin behar da:

- 5. Lotea - Lur lantzea eta ereitea, Ekisolan	
Lurraren lantzea eta ereitea	<u>9.298,98 €</u>
Gauzatze materialaren aurrekontua:	9.298,98 €
Gastu orokorrak eta industria etekina:	1.487,84 €
Segurtasun eta osasun neurriak	185,98 €
KONTRATUA GAUZATZEKO AURREKONTUA:	10.972,80 €
BEZa (%10)	1.097,28 €
Lizitazioaren aurrekontua, guztira:	12.070,08 €

Halaber, artikulua horretan aurreikusita dago, lotetan zatitzen denean, lote edo prestazio bereizi bakoitzaren esleipenean aplikatu beharreko prozedura eta publizitate arauak multzoaren balio metatuaren arabera zehaztuko direla, eta, beraz, kontratazio prozedura aukeratzeko, EFPLren 80. artikuluan ezarritakoaren arabera esleitu ahal izanen dela, prozedura sinplifikatuaren bidez. 200.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten obra kontratuetan bakarrik egin ahal izanen da. Adierazitako lote guztietarako kontratuaren gehieneko prezioa 88.056,92 € da.

Aurreko dokumentuak eta txostena ikusita, Osoko Bilkurak onetsi egin du 2024-2025 ATF proiektuari dagozkion eta gauzatzeko dauden lanak prozedura sinplifikatu bidez kontratatzea, onartutako kontratazio baldintzen eta adierazitako baso jarduera eta -lanen proiektuan jasotako baldintza teknikoaren arabera, bai eta Ekisolan ereiteko berariazko memorian jasotakoaren arabera ere.

Bestalde, Osoko Bilkurak uste du beharrezkoa dela Ekisola ereiteko lana ehiza espezieentzako habitatak hobetzeko berrinbertsio gisa sar daitekeen kontsultatzea; kasu horretan, zenbateko hori diruzaintzako gerakinaren kontura finantzatuko da, atxikitako baliabideengatik.

BOSGARRENA.- ADMINISTRARI LAGUNTZAILEAREN KONTRATUA.

Aurtengo martxoan, administrari laguntzailearen kontratua, hasiera batean lanaldi erdikoa zena, lanaldi osokoa luzatu zen (kudeaketa aginduari erantzuteko). Hori bukatutakoan, Osoko Bilkurak % 100eko lanaldiarekin jarraitzea onartu zuen abendura arte, langileak Kultur Olan administrazio-

kudeaketa eta arreta partziala ere eraman ahal izateko, eta gaia abenduan berriro aztertzea erabaki zen. Osoko Bilkuraren arabera, beharrezkoa da egungo lanaldia % 100ean mantentzea, Batzarrean eta Kultur Olan administrazio-kudeaketako lanak hurrengo urteetan egin ahal izan ditzan. Era berean, aurrekontua onartzean, hurrengo ekitaldian plantilla organikoa aldatzea aztertuko da.

Interesdunak dagoeneko adierazi du prest dagoela lanaldi horrekin jarraitzeko, eta, beraz, erabaki da indarrean mantentzea maiatzean egin zen kontratuaren aldatzea, eta, ondorioz, administrari laguntzailearen lanaldi osoa.

SEIGARRENA.- GYMKANA TURISTIKOAREN PROPOSAMENA.

Gymkana Turística Digital enpresak aurkeztutako proposamena irakurri da. Inguru horretan turismoa eta kultura dinamizatzeko proiektu bat garatzen ari da, eta dagoeneko bilera bat egin da eskualdeko arduradunarekin.

Gymkana formako ibilbideen bidezko dinamizazio proiektu bat da. Bertan, helmuga bakoitzeko istorio bereziak kontatzen dira jolas moduan, urte osoan zehar jendea erakartzeko, tokiko kultura eta ondarea ezagutarazteko eta bisitariaren esperientzia hobetzeko eta, aldi berean, garapen ekonomikoan sustatzeko helburuarekin.

Batzarreburuak adierazi du oso gai interesgarria dela, baina inbertsio handia eta mantentzeko urteko gastua eskatzen duela. Proposamen horiek benetan turismorako beharrezkoak diren ikusi behar da, bai eta inguru horretan bisitari kopurua handitzeko adina zerbitzu dauden ere. Osoko Bilkuraren ustez, oraingoz ez da horrelako proiekturik eginen, baina lau haranen artean aztertzeko planteatuko da, osotasunean ikusteko.

ZAZPIGARRENA.- HAUTESKUNDEETARAKO DEIALDIARI BURUZKO ERABAKIA.

Abenduaren 22rako aurreikusita dauden Aezkoako Batzarre Nagusirako kideen hauteskundeetara hautagai-zerrendarik aurkeztu ez denez, beste deialdi bat egiteko eguna zehaztu behar da.

Batzarreburuak uste du orain, deialdi berri hori egin aurretik, arlokako bilera batzuk egin beharko lirakeela, egindako lanak, abian edo mahai gainean dauden proiektuak eta etorkizunerako planteamenduak azaltzeko, herritar guztiak jakinaren gainean egon daitezzen eta Batzarre Nagusian egotearen garrantzia helarazi ahal izateko. Bilera horiek irekiak izanen dira, nahiz eta hasieran sektoreka deitu, eta gaiekin interesa duen edonor joan ahal izanen da bilera batera edo batzuetara.

Arlokako bilera hauek egitea proposatu da, gutxi gorabeherako datekin. Bilera egunak deialdi bakoitza egiteko orduan zehaztuko dira, egiteko benetako aukeren arabera. Helburua da hauteskunde deialdia otsailaren hasieran edo erdialdean egitea, guztiak egindakoan:

- 1.- Turismoaren arloko bilera: abenduaren 19an.
- 2.- Azpiegituren, industriaren, energiaren eta etxebizitzaren arloko bilera, abenduaren 26an.
- 3.- Lehen sektoreko (Mendiak eta abeltzaintza) autonomoen eta zerbitzu-enpresen sektoreetako bilera: urtarrilaren 10ean.

4.- Komunikazioen, harreman instituzionalen, gazteriaren eta kulturaren arloetako bilera, urtarrilaren 17rako.

Osoko Bilkura ados dago proposamen horrekin.

ZORTZIGARRENA.- BESTELAKOAK

1- Acciona Generacion-en eskaera – aireko linea elektrikoa kentzea

Irakurri da Acciona Generación Renovable SU enpresak aurkeztutako eskaera. Bertan azaltzen duenez, "Irabiako Zentral Hidroelektrikoa" jauzi hidroelektrikoaren titularrak da, eta zentral hori Iberdrolaren banaketa sarearekin lotzen duen goi tentsioko aireko linea elektrikoa du. Gaur egun lurrazpiko linea berria eginda eta zerbitzuan dagoenez (bere garaian, Aezkoako Batzarre Nagusiak ere baimendu zuen), zaharkituta geratu den aireko linearen sistema osoa kendu behar da. Eskaerarekin batera, lortutako baimenen agiririk aurkeztu dituzte.

Batzarre Nagusiaren Osoko Bilkurak erabaki du Acciona Generacion enpresari baimena ematea Aezkoako mendira sartzeko, eskabidean eta erantsitako memorian deskribatutako aireko linea elektrikoa desegiteko eta kentzeko lanetarako (garai bateko Irabia CHa husteko goi-tentsioko 20 kV-ko aireko linea). Berriaz adierazi da enpresak menditik kendu behar duela instalazioa eraisteari edo horretarako behar diren lanei dagokien material mota oro.

2- Ariben autobus geltokia kokatzeko proposamena.

Tracasako garraioaren plangintzarako laguntza teknikoak bidalitako proposamen bat irakurri da. Bertan, autobus geltokia kokatzeko bi aukera azaltzen dira. Alde batetik, Batzarre Nagusi honen jabetzakoa den Aezkoako Etxearen hormaren ondoan dagoen eremua proposatzen da, eta, bestetik, Caixaren ondoan dagoena. Proposamenak ikusita, Osoko Bilkurak erabaki du jakinaraztea ez duela inolako eragozpenik Batzarre Nagusi honen jabetzako lursailean dagoen eta dokumentuan "Parada 3717, Santa María k. Prox. 10" gisa agertzen den autobus geltokia gaitzeko. Gaur egun, edozein ibilgailurentzako aparkaleku orokor gisa erabiltzen den eremua da, eta, beraz, autobuserako erabiltzea ez litzateke arazo izanen. Autobusaren erabilera orduak seinaleztatzeko proposamenari dagokionez, gainerako ibilgailuek ordu horietatik kanpo erabili ahal izateko, positibotzat jotzen da.

3- Garapen Agentziaren kostuak banatzeko proposamena.

Jakinarazi da 2025. urterako Garapen Agentziarentzat zonakatzeko berri bat aurreikusten dela, Esteribar egungotik ateratzen baita (Esteribar-Erro-Aezkoa); hau da, egungo Garapen Eragileak ez du Esteribarko haranean lan eginen, baizik eta Erron, Aezkoan, Auritzen, Orreagan eta Luzaiden. Oraingoz ez dago zehaztuta nola geratuko den, eta mahai gainean hainbat proposamen daude langileentzat, bai egungo lanaldia mantentzea, bai lanaldi hori zenbait proportziotan murriztea: lanaldiaren % 100, % 75, % 66 eta % 50erako kalkulua daude. Gai hau bailarako udalekin ere aztertuko behar da. Bestalde, zonifikazioa desitxuratzen ari dela uste da, zerbitzu edo jarduerak bakoitzaren arabera desberdinak baitira: adibidez, Orotz eta Artzibar agentzia horretatik kanpo geratzen dira, baina Pirinio aldean daude; Esteribar zonifikazio horretatik ateratzen da, baina UGETn jarraitzen du...

Gai hori eraginpeko gainerako erakundeekin eta Cederna-Garalur elkartearekin zehaztuko da.

4- Auñamendi Mankomunitatearen komunikatua, langileen soldatak erregularizatzeari buruzkoa.

Gai hori uztailean jakinarazi zen, eta Mankomunitateko langileek egindako erreklamazio batzuekin lotuta dago. Erreklamazio horien ondorioz, mankomunitateak soldata atzerapenen ordainketa bere gain hartu behar du, eta kalkulua egin ondoren, 58.896,30 eurokoa da, Gizarte Segurantzaren kostua barne. Kopuru horretatik Aezkoako Batzarre Nagusiari hamaika mila bi euro eta hirurogei zentimo dagozkio (Aezkoako bailara osoari dagokionaren % 50). Mankomunitateak urtea amaitu baino lehen ordaintzea eskatu du.

Ekitaldi honetako aurrekontuari ezin zionez zenbateko hori guztia aplikatu, erabaki da Mankomunitateari jakinaraztea 2025. urtean eginen duela.

5- Ikastetxeen sarea berrantolatzeari buruzko informazioa.

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak Irunberriko institutu berria batxilergoko eskaintza 2025-2026 ikasturtean hasteko asmoa du, bi modalitatetan: Zientzia eta Teknologia Batxilergoa eta Giza eta Gizarte Zientzien Batxilergoa.

Horrek esan nahi du hezkuntza-eskaintza berria dagoenez, egungo eskola-mapa aldatu egingen dela. Horregatik, Hezkuntza Departamentuak Agoitz, Garralda, Otsagabia eta Erronkariko ikastetxeetan Bigarren Hezkuntzako ikasketak egiten ari diren ikasleak dituzten Pirinioetako udalei eskatu die azaroaren 26a baino lehen txostenak egin ditzatela, 2025-2026 ikasturteik aurrera abian jarriko den Irunberriko institutu berria Batxilergoa ikasteko aukerari buruz.

Pirinioetako Mahaiko Hezkuntzako taldeak azaroaren 20an Toki Administrazioa eta Despopulazioko Zuzendaritza Nagusiarekin izandako bileraren berri eman du, Irunberriko Institutuari buruzko zalantzak argitzeko. Bilera horretan, Zuzendaritzak Hezkuntzako Zuzendaritza Nagusiarekin eta Digitalizazioko eta Hezkuntza Zerbitzuetako Zuzendaritza Nagusiarekin izandako elkarrizketen ondoriozko informazioa helarazi zion Mahaiari. Hezkuntza departamentuaren nahia da datorren ikasturtean Irunberriko batxilergoa egiten ari diren ikasleak ibilgailuetan garraiatzeko zerbitzua ziurtatzea eta Pirinioetako ikasleei Irunberri ez den batxilergoko edozein ikastetxetan plaza izatea bermatzen dien neurri positiboari eustea. Pirinioetako Mahaiaren jarrera da erreferentziazko institutua mantentzea, eta eskola mapan aldatetaren bat badago, beharrezko neurriekin batera joatea: egoitzak, garraioa...

Batzarre Nagusia jakinaren gainean dago.

6- Goicoa jaunarekin izandako bilera, hainbat proposameneri buruzkoa.

Informatu da Goicoa jaunarekin egindako bilera batez. Bertan, ikastaro eta hitzaldi batzuk egiteko proposamena azaldu du, baita Kultur Olan mineralei buruzko erakusketa berri bat izateko aukera ere. Olazarren instalatutako kablea kentzea ere proposatu du. Gai horiek guztiak landuko dira, eta, kable horri dagokionez, segurtasun eskakizun guztiak kontsultatzea erabaki da, inolako akordiorik hartu aurretik.

6- Kultur Ola Taberna.

Jakinarazi da Kultur Olako taberna-kafetegiaren prezio eguneratuen zerrenda aurkeztu dela. Aztertu ondoren, Batzarre Nagusiak onartu egin du eta akta honi atxiki zaio eranskin gisa.

7- 112 zenbakiari eta horren estaldurari buruzko bilera.

Datorren abenduaren 20an bilera bat egingen da Tracasaren egoitzan, Iratiko estaldurari eta larrialdietako telefonoari buruz hitz egiteko. Batzarre Nagusia, Orbaizetako Udala eta Acciona Energia enpresa deituta daude bilkurara.

8- Biosfera Erreserba.

Batzarreburu jaunak jakinarazi du hil honen 12an Irati Biosfera Erreserba izendatu izana egiaztatzen duen diploma eman diotela Batzarre Nagusi honi Parke Nazionalen ordezkariak. Banaketan eta ondorengo bileran izan ziren Javier Pantoja jauna, Parke Nazionalak erakundeko zuzendaria, Gizakia eta Biosfera Programaren (MaB) garapena koordinatzen duena, Ignacio Achucarro jauna, erakunde berekoa, Aezkoa eta Zaraitzuko Batzarburuak eta Fermin Olave jauna, Nafarroako Gobernuako Ingurumeneko zuzendari nagusia.

Emate ondorengo bileran, oso interesgarria izan zena, erreserben funtzionamendu jarraibideei eta dauden ereduei buruz hitz egin zen, eta lan egiteko moduari buruzko informazio asko jaso zen. Orain bi Batzarren eta Nafarroako Gobernuaren artean bilera bat egin behar da, kudeaketari ekiteko. Lanerako ideiatzat hartu behar da Iratiko Mahaia egonkontu ahal izatea. Mahai horretan, Batzarrek ez ezik, Nafarroako Gobernuak eta Akitaniako ordezkariak ere egon behar lirabeteke. Izan ere, gaur egun funtsak dituzten mahaiak ikusten ari dira, eta, une honetan, Irati da erabilienetako izen bat, baina, ordea, funts gutxien jasotzen duena.

BEDERATZIGARRENA. - GALDE-ESKEAK.

Ez da galde-eskerik egin.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, bilkura 15:45ean amaitu da. Errandakoa jasotzeko eta akta hau egin da, eta nik, idazkariak, ziurtatu egiten dut.